

eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea
RECTORADO/ERREKTOREGOA

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEEN GESTIORAKO ARAUTEGI PROPOSAMENA



AURKIBIDEA

1.-	HITZAURREA.....	5
2.-	IRAKASLE KONTRATATUAK	6
	2.1.- KONTRATAZIO IRAUNKORRERAKO IRAKASLE KATEGORIAK.....	6
	2.1.1.- IRAKASLE OSOA	6
	2.1.2.- IRAKASLE AGREGATUA	7
	2.1.3.- IRAKASLE LAGUNTZAILE IRAUNKORRA.....	7
	2.2.- ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO IRAKASLE KATEGORIAK	8
	2.2.1.- IRAKASLE LAGUNTZAILEA	8
	2.2.2.- IRAKASLE ATXIKIA (IRAKASLE LAGUNTZAILE DOKTOREA)	9
	2.2.3.- ALDI BATERAKO IRAKASLE LANKIDEA	9
	2.2.4.- IRAKASLE ELKARTUA	10
	2.2.5.- BITARTEKO IRAKASLE KONTRATATUA.....	11
	2.3.- PROMOZIOA	12
	2.4.- EGONKORTASUNA	12
3.-	JARDUNBIDE OROKORRA.....	12
4.-	IRAKASKUNTZAREN PLANGINTZA. IRAKASTEKO AHALMENA HANDITZE ESKARIAK.....	13
5.-	IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN LANPOSTUEN ZERRENDAKO ALDAKET IKASTEGIZ, SAILEZ, JAKINTZA ARLOZ, ARDURALDIZ, HIZKUN ESKAKIZUNEZ EDO KATEGORIAZ ALDATZEA.....	18
	5.1.- IKASTEGIZ ALDATZEA	19
	5.2.- SAILEZ ALDATZEA.....	20
	5.3.- JAKINTZA ARLOZ ALDATZEA.....	21
	5.4.- ARDURALDIZ ALDATZEA (MURRIZTEA).....	21
	5.5.- HIZKUNTZA ESKAKIZUNEZ ALDATZEA.....	22
	5.6.- KATEGORIAZ ALDATZEA.....	23



6.- IRAKASLEEN KIDEGOETAKO PLAZAK	24
6.1.- UNIBERTSITATEKO IRAKASLEEN KIDEGOAK.....	24
6.2.- KARRERAKO FUNTZIONARIOEK UNIBERTSITATEKO IRAKASLI KIDEGOETAKO LANPOSTUAK BETETZEKO ETA DEIALDIK EGITI PROPOSAMENA.....	26
6.3.- UNIBERTSITATEKO KATEDRA BERRIAK.....	27
6.4.- UNIBERTSITATE ESKOLAKO KATEDRA BERRIAK.....	27
6.5.- IRAKASLE KONTRATATUEN PLAZAK ALDATZEAREN ONDORIOZ SORTUTAKO IRAKASLE TITULARREN PLAZA BERRIAK ETA IRAKASLE TITULARREN PLAZA BERRIAK BETETZEKO ESKARIAK.....	28
6.6.- IRAKASLE KONTRATATUEN PLAZAK ALDATZEAREN ONDORIOZ SORTUTAKO UNIBERTSITATE ESKOLAKO IRAKASLE TITULARREN PLAZ/ BERRIAK BETETZEKO ESKARIAK.....	29
6.7.- UNIBERTSITATEAN SARTZEKO LEHIAKETAK.....	29
6.8.- IRAKASLE OSOEN PLAZA BERRIAK.....	44
7.- IRAKASLE KONTRATATUEN PLAZA HUTSAK ALDI BATERAKO BETETZEA	45
8.- PLAZAK ALDI BATERAKO BETETZEA: ORDEZKOAK.....	46
9.- LAN KONTRATUAK BETETZEKO LEHIAKETA PUBLIKOAK LEHIAKETETAKO EPAIMAHAIK: XEDAPEN OROKORRAK.....	48
9.1.- DEIALDIK ARGITARATZEA.....	48
9.2.- GERENTZIAREN TXOSTENA.....	48
9.3.- LEHIAKETETAN PARTE HARTZEKO BETEBEHARRAK.....	48
9.4.- EPAIMAHAIK.....	49
9.5.- BAREMAZIORAKO IRIZPIDE BEREZIAK.....	50
9.5.1.- IRAKASKUNTZAKO ESPERIENTZIA	52
9.5.2.- IKERKETAKO ESPERIENTZIA	52
9.5.3.- ESPEDIENTE AKADEMIKOA	53
9.5.4.- EUSKARAREN JAKITE MAILA	54
9.5.5.- LANEKO ESPERIENTZIA	54



10.- BATERAGARRITASUNAK	55
11.- IRAKASLE EMERITUAK ETA IRAKASLE BISITARIAK UNIBERTSITATI SARTZEA.....	56
11.1.- ADINAGATIK ERRETIROA NAHITAEZ HARTU DUTEN IRAKA EMERITUA.....	56
11.2.- IRAKASLE BISITARIA.....	58
12.- KANPOKO FINANTZAZIOAZ KONTRATATUTAKO IKERTZAILEAK	59
13.- LEKTOREAK	62
14.- IRAKASLEENTZAKO LIZENTZIA SABATIKOAK	63
14.1.- BALDINTZAK	64
14.2.- PROZEDURA	64
14.3.- BESTE LIZENTZIA BATZUK	65



EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEEN GESTIORAKO ARAUTEGI PROPOSAMENA

1. HITZAURREA

Arautegi hau onartzen den momentuan indarrean dagoen arautegiarekin bat dator, hau da:

- Abenduaren 21eko Unibertsitateen 6/2001 Lege Organikoa (2001eko abenduaren 24ko EBO).
- Urriaren 21eko 247/2003 Dekretua (azaroaren 5eko EHAA), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarena, aldi baterako kontratatutako unibertsitate irakasleei buruzkoa.
- Uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretua, unibertsitateko irakasle funtzionarioen kidegoetan sartzeko gaitasun sistema eta kasuan kasuko lehiaketak garatzeko modua arautzen duena (2002ko abuztuaren 7ko EBO).
- Urriaren 11ko 1052/2002 Errege Dekretua, ANECA/Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziaren ebaluazioa eta ziurtagiria lortzeko prozedura arautzen duena, unibertsitateko irakasleak eta ikertzaileak kontratatzeko.
- 2002ko urriaren 17ko Erabakia, unibertsitateko irakasleak eta ikertzaileak kontratatzeko ANECAren ebaluazio irizpide orokorrak argitara ematen dituen eta eskabideak aurkezteko prozedura finkatzen duena (2002ko urriaren 30eko EBO).
- Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuak, abenduaren 23ko 322/2003 Dekretuaren bidez onartuak (2004ko urtarrilaren 12ko EHAA).
- Otsailaren 25eko 3/2004ko Legea, Euskal Unibertsitate Sistemarena (martxoaren 12ko EHAA)

Irakasleei buruzko arautegi honen bidez irakasleentzako baliabideak esleitzeko baldintzak arautuko dira, betiere, aurrekontua oinarri hartuta. Baliabide horiek esleitzeko baldintza nagusia epe laburrerako irakasleen plangintza izango da. Arautegi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Bestalde, testu hau aldatzea eragingo lukeen lege aldaketarik egonez gero, jakinarazi egingo da zeintzuk diren egin beharreko aldaketak, bai eta urtero-urtero zirkularrean eta egutegian egin behar diren egokitzapenak ere.

Irakasleen politika zehatz bat aurrera eramateko beharrezkoak diren aurrekontu bitartekoen ebaluazio eta negoziazioak, EHUK hizkuntzaren, titulazioen eta irakaskuntza antolatzeke planen alorretan garatuko duen estrategi politikarekin harreman hertsia izanik, denentzako lan arau berberak hartzea eskatzen dio unibertsitate osoari epe labur, ertain eta luzean, jarduera plan orokorrak ezartzeko aukera eskainiz denborazko programazioaren arabera. Akademia eta irakats gestioaren eredu berriari dagokion proiektu bateratua jarri zuen martxan unibertsitateak 1997/98 ikasturtean, urteroko irakats eskaintzarekin zerikusia duten errektoreordetzen arteko koordinazioa bermatu ahal izateko.

Beraz, ikasturte bakoitzerako prozedura bateratuan eta/edo zirkularrean ezarritako epeak hartu beharko dira kontuan arautegi honetan adierazitakoa aplikatzerakoan, hala ikasturte bakoitzari dagokion irakats antolakuntzaren arloko plan guztietan (taldeen, ordutegien eta ikasgelen plangintza) nola irakats ahalmena gehitzeko eskarien kasuan.

Sailek, irakats eskaintzaren proposamena egiterakoan, euren plantilla zabaltzeko eskaria aurkezteko aukera izango dute. Eskaria bi modutara egin beharko da: alde batetik, proiektu bateratuko grabaketa informatikoa eta, bestetik, dokumentu honi, edo berau garatzeko egingo den zirkularri, gaineraturiko eranskinak bete beharko dira. Eranskinok irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordetzara bidaliko dira, eta berak bideratuko ditu ondoren tramitatu behar dituzten zerbitzuetara.



Gogoan izan eskari berriak egiteko ez direla ezarriko Gobernu Batzarrak 1999ko urriaren 20an onartutako plantilla teorikoaren dokumentuko irizpideak.

2.- IRAKASLE KONTRATATUAK

Abenduaren 21eko Unibertsitateen 6/2001 Lege Organikoak lan kontratua izango duten irakasleen irudien zirriborroa egiten du 48. artikuluan eta hurrengoetan, Euskal Autonomia Erkidegoak garatu beharko dituenak.

Hori dela eta, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren urriaren 21eko 247/2003 Dekretuak, aldi baterako kontratatutako unibertsitate irakasleei buruzkoak, LOUn aipatutako lan kontratuko irudietako batzuk garatzen ditu.

Bestalde, otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, arau garrantzitsuak ditu irakasleen arlorako, eta horiek, askotan, garatu egin behar dira ezarri ahal izateko.

Argitu nahi dugu irakasle bisitari eta irakasle emeritu figurak arautegiko 11. atalean aztertuko direla.

2.1. KONTRATAZIO IRAUNKORRERAKO IRAKASLE KATEGORIAK

Otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, zenbait irakasle figura iraunkor zehazten ditu eta horiek arauen bidez garatu beharra dago.

Aipatutakoa gorabehera, Gobernu Kontseiluak irakasle agregatu eta irakasle lankide iraunkorraren plazak sor ditzake lanpostuen zerrendan sartzeko. Hala ere, irakasle irudi horiek unibertsitatean sartzeko izango duten prozedura garatu beharra dagoenez, irakats lan hori bitarteko irakasle kontratatuekin bete ahal izango da, aldi baterako.

2.1.1. IRAKASLE OSOA

Irudi hau otsailaren 25eko 3/2004 Legean, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoan, dago jasota, 19. artikuluan, eta horren arabera honako ezaugarriak ditu:

- Doktore titulua beharrezkoa duten unibertsitateko irakasle kidegoetakoren batekoa izatea, edo lege honen arabera irakasle agregatua izatea, eta gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatzea unibertsitateko irakaskuntza eta doktorego ondoko ikerketa jardueretan.
- Beharrezkoa izango da, baita ere, Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziak, ANECA/Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziak edo Euskal Autonomia Erkidegoko araudiak onartutako antzeko erakunde batek irakaslan eta ikerlan horren aldeko ebaluazioa izatea aldeztu aurretik.
- Arduraldia: ahal dela, arduraldi osoa.

2.1.2. IRAKASLE AGREGATUA

Irudi hau otsailaren 25eko 3/2004 Legean, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoan, dago jasota, 20. artikuluan, eta horren arabera honako ezaugarriak ditu:

- Eskatutako titulazioa: doktorea.
- Gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatzea doktorego ondoko ikerketa eta unibertsitateko irakaskuntza jardueretan.



- Beharrezkoa izango da, baita ere, Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziak, ANECA/Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Estatuko Agentziak edo Euskal Autonomia Erkidegoko araudiak onartutako antzeko erakunde batek irakaslan eta ikerlan horren aldeko ebaluazioa izatea alde z aurretik.
- Arduraldia: ahal dela, arduraldi osoa.

Irakasle mota hau unibertsitatean sartzeko prozedurari buruzko arautegia garatu gabe dagoenez, gaur egun ezinezkoa da irakasle agregaturik kontratatzea, baina hori, dena dela, ez da oztopo mota horretako lanpostuak sortzeko lanpostuen zerrendan. Otsailaren 25eko 3/2004 Legeko 20. artikuluan zehaztutakoa arauz garatu bitartean, eta irakasle agregatu lanpostuak arauz betetzea ahalbidetuko duen oinarri juridikorik izan bitartean, lanpostu horiek bitarteko irakasle kontratatuekin beteko dira. Oinarri juridikoa behin osatuta, lanpostuen zerrendan irakasle agregatu kategoriarekin zehaztuta dagoen lanpostua betetzeko prozedurari ekingo zaio.

2.1.3. IRAKASLE LANKIDE IRAUNKORRA

Irudi hau otsailaren 25eko 3/2004 Legean, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoan, dago jasota, 19. artikuluan, eta horren arabera honako ezaugarriak ditu:

- Eskatutako titulazioa, orokorrean: lizentziatua, arkitektoa edo ingeniaria.
- Ondoren aipatzen diren jakintza arloetarako kontratatzen diren irakasle lankideak, aldiz, unibertsitateko diplomatu, arkitekto tekniko edo ingeniari teknikoak izan ahalko dira: 110 Arkitektura Eraikuntzak; 187 Gorputz Adierazpidearen Didaktika; 189 Musika Adierazpidearen Didaktika; 193 Plastika Adierazpidearen Didaktika; 255 Erizaintza; 300 Arkitekturako Adierazpen Grafikoa; 0305 Ingeniaritzako Adierazpen Grafikoa; 413 Fisioterapia; 505 Kartografia Geodesia eta Fotogrametria Ingeniaritza; 535 Ingeniaritza Elektrikoa; 647 Optika; 813 Gizarte Langintza eta Gizarte Zerbitzuak.
- Irakasle irudi hau Gobernuak zehaztutako jakintza arloetarako irakasle lankideak kontratatzeko baino ezin izango da erabili, guztia abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoari jarraituz. Gaur egun, honakoak dira Gobernuak uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretuaren bidez zehaztutako jakintza arloak: 35 Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia; 110 Arkitektura Eraikuntzak; 187 Gorputz Adierazpidearen Didaktika; 189 Musika Adierazpidearen Didaktika; 193 Plastika Adierazpidearen Didaktika; 195 Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika; 200 Matematikaren Didaktika; 205 Zientzia Esperimentalen Didaktika; 210 Gizarte Zientzien Didaktika; 215 Didaktika eta Eskola Antolakuntza; 245 Gorputz eta Kirol Hezkuntza; 255 Erizaintza; 300 Arkitekturako Adierazpen Grafikoa; 305 Ingeniaritzako Adierazpen Grafikoa; 413 Fisioterapia; 505 Kartografia Geodesia eta Fotogrametria Ingeniaritza; 510 Eraikuntzako Ingeniaritza; 515 Fabrikazio Prozesuen Ingeniaritza; 520 Sistemen Ingeniaritza eta Automatika; 535 Ingeniaritza Elektrikoa; 545 Ingeniaritza Mekanikoa; 570 Hizkuntza eta Sistema Informatikoak; 605 Ingurumen Jarraituen Mekanika eta Egituren Teoria; 647 Optika; 705 Landare Ekoizpena; 785 Teknologia Elektronikoa; eta 813 Gizarte Langintza eta Gizarte Zerbitzuak.
- Beharrezkoa izango da, baita ere, Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziak, ANECA/Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Estatuko Agentziak edo Euskal Autonomia Erkidegoko araudiak onartutako antzeko erakunde batek irakaslan horren aldeko txostena egin izatea alde z aurretik.
- Eginkizunak: irakaslanak besterik ez.
- Arduraldia: osoa edo partziala (irakaslan betetzeko dauden premien arabera).

Irakasle mota hau kontratu iraunkorarekin kontratatzeko jarraitu beharreko prozedurari buruzko arautegia garatu gabe dagoenez, gaur egun ezinezkoa da irakasle lankide iraunkorrik kontratatzea, baina hori, dena dela, ez da oztopo mota horretako lanpostuak sortzeko lanpostuen zerrendan.



2.2. ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO IRAKASLE KATEGORIAK

2.2.1. LAGUNTZAILEA

LOUko 49. artikulua eta urriaren 21eko 247/2003 Dekretuko 5. artikulua araututako lan kontratuko irudia, ezaugarri hauek dituena:

- Eskatutako titulazioa: 6/2001 lege organikoko 38. artikuluan aipatutako doktorego ikasketak (ikertzeko gaitasuna) bukatu dituzten goi mailako tituludunak.
- Helburu nagusia: ikertzaile prestakuntza amaitzea.
- Arduraldia: osoa.
- Eginkizunak: irakasle laguntzaileen zeregin bakarria irakaslanean laguntzea izango da, nahiz eta hori ez den oztopo izango bere prestakuntzan aurrera egiteko. Hori bat dator Unibertsitateko Estatutuetoako 46. artikuluekin (abenduarien 23ko 322/2003 Dekretuaren bidez onartuak). Irakasle laguntzailea kontratatzearen helburu nagusia ikerketaren eta irakaskuntzaren arloko prestakuntza osatzea da. Sailak unibertsitateko irakasle funtzionario doktoreen artetik edo irakasle kontratatu doktore iraunkorren artetik irakasle bat izendatu beharko du laguntzailearen tutore izateko, eta prestakuntzaren jarraipena egiteko. Sailak 4 eskola ordu eta tutoretzako beste 4 ordu esleitu ahal izango dizkio laguntzaileari. Dena dela, laguntzailearen eskola orduak praktikoak izango dira.
- Kontratuaren iraupena: gutxienez urte bat eta gehienez lau urte.

2.2.2. IRAKASLE ATXIKIA (IRAKASLE LAGUNTZAILE DOKTOREA)

LOUko 50. artikulua (Irakasle laguntzaile doktorea ageri da lege horretan), urriaren 21eko 247/2003 Dekretuko 6. artikulua (LOUko izen berarekin ageri da) eta otsailaren 25eko 3/2004 Legeko 21. artikulua araututako irudia, ezaugarri hauek dituena:

- Eskatutako titulazioa: doktorea.
- Honako hau ere egiaztatzen behar da: Euskal Herriko Unibertsitatearekin gutxienez bi urtez loturirik ez dutela izan, ez kontratu bidez, ez estatutu bidez, ezta beka bidez ere, eta aldi horretan unibertsitate horri lotuta ez dauden zentroetan egin dituela irakaskuntza lanak zein ikerketa lanak edo doktore titulua beste unibertsitate batek eman diola.
- Beharrezkoa izango da, baita ere, Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziak, ANECA/Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziak edo Euskal Autonomia Erkidegoko araudiak onartutako antzeko erakunde batek irakaslan eta ikerlan horren aldeko ebaluazioa izatea aldeztu aurretik.
- Lanpostua atxikita duen sailak emandako aldeko txostena, lehiakidearen irakaskuntzarako eta ikerketarako gaitasunari buruzkoa.
- Eginkizunak: irakaslanak eta ikerlanak.
- Arduraldia: ahal dela, arduraldi osoa.
- Kontratuaren iraupena: gehienez lau urte.
- Eskola orduak: astean 6 ordu (gehienez).

2.2.3. ALDI BATERAKO IRAKASLE LANKIDEA

LOUko 51. artikulua, urriaren 21eko 247/2003 Dekretuko 7. artikulua eta otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, 22. artikuluan araututako irudia, ezaugarri hauek dituena:



- Eskatutako titulazioa, orokorrean: lizentziatua, arkitektoa edo ingeniaria.
- Ondoren aipatzen diren jakintza arloetarako kontratatzen diren irakasle lankideak, aldiz, unibertsitateko diplomatu, arkitekto tekniko edo ingeniari teknikoak izan ahalko dira: 110 Arkitektura Eraikuntzak; 187 Gorputz Adierazpidearen Didaktika; 189 Musika Adierazpidearen Didaktika; 193 Plastika Adierazpidearen Didaktika; 255 Erizaintza; 300 Arkitekturako Adierazpen Grafikoa; 0305 Ingeniaritzako Adierazpen Grafikoa; 413 Fisioterapia; 505 Kartografia Geodesia eta Fotogrametria Ingeniaritza; 535 Ingeniaritza Elektrikoa; 647 Optika; 813 Gizarte Langintza eta Gizarte Zerbitzuak.
- Irakasle irudi hau Gobernuak zehaztutako jakintza arloetarako irakasle lankideak kontratatzeko baino ezin izango da erabili, guztia abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoari jarraituz. Gaur egun, honakoak dira Gobernuak uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretuaren bidez zehaztutako jakintza arloak: 35 Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia; 110 Arkitektura Eraikuntzak; 187 Gorputz Adierazpidearen Didaktika; 189 Musika Adierazpidearen Didaktika; 193 Plastika Adierazpidearen Didaktika; 195 Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika; 200 Matematikaren Didaktika; 205 Zientzia Esperimentalen Didaktika; 210 Gizarte Zientzien Didaktika; 215 Didaktika eta Eskola Antolakuntza; 245 Gorputz eta Kirol Hezkuntza; 255 Erizaintza; 300 Arkitekturako Adierazpen Grafikoa; 305 Ingeniaritzako Adierazpen Grafikoa; 413 Fisioterapia; 505 Kartografia Geodesia eta Fotogrametria Ingeniaritza; 510 Eraikuntzako Ingeniaritza; 515 Fabrikazio Prozesuen Ingeniaritza; 520 Sistemen Ingeniaritza eta Automatika; 535 Ingeniaritza Elektrikoa; 545 Ingeniaritza Mekanikoa; 570 Hizkuntza eta Sistema Informatikoak; 605 Ingurumen Jarraituen Mekanika eta Egituren Teoria; 647 Optika; 705 Landare Ekoizpena; 785 Teknologia Elektronikoa; eta 813 Gizarte Langintza eta Gizarte Zerbitzuak.
- Beharrezkoa izango da, baita ere, Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziak (oraindik sortu gabeak), ANECA/Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziak edo Euskal Autonomia Erkidegoko araudiak onartutako antzeko erakunde batek irakaslan horren aldeko txostena egina izatea aldeztuz.
- Eginkizunak: irakaslanak besterik ez.
- Arduraldia: osoa edo partziala (irakaslana betetzeko dauden premien arabera).
- Kontratuaren iraupena: gehienez 3 urte (aldi baterakoa bada) Kontratu mota hau iraunkorra ere izan daiteke.

Mota honetako irakasleak kontratatzeko deialdi publikoa egitean, sarri gertatzen da plaza eman gabe utzi behar izatea ez dagoelako lehiakide onarturik. Horrelakoetan, irakaslanean sortutako premiak aldi baterako betetzeko xedez, deialdi publikoa egingo da bitarteko irakasle kontratatua kontratatzeko.

2.2.4. IRAKASLE ELKARTUA

LOUko 53. artikulua, urriaren 21eko 247/2003 Dekretuko 8. artikulua eta otsailaren 25eko 3/2004 Legeko 23. artikulua araututako irudia, ezaugarri hauek dituena:

- Eginkizunak: irakaslanak besterik ez.
- Arduraldia: partziala (astean 6, 5, 4 edo 3 eskola ordu).
- Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren txostena edo Euskal Autonomia Erkidegoko araudiak onartutako antzeko erakunde baten egiaztatzea izatea.
- Beharrezkoa izango da egiaztatzea unibertsitateko irakaskuntzatik kanpora egindako lanbide jardura agirien bidez; hain zuzen, aurreko lau urteetan (unibertsitateak irakasle elkartu gisa kontratatzeko egindako deialdira eskaria aurkeztu den egunetik kontatzen hasita) gutxienez bi urtez lanbide jardueretan aritu izana egiaztatzea behar da, unibertsitatean irakasteko gaitzen duen titulu akademikoari dagozkion lanbideetako batean, alegia.



- Arduraldi partzalean kontratatutako irakasle elkartuak bateragarritasun baimena baldin badauka beste jarduera bat egiteko, lehentasuna izango du beste jarduerako ordutegiarekin bateragarri diren taldeak hartzeko. Dena dela, horrek ez du esan nahi irakasle horrek horretarako eskubidea duenik, ez eta eskolak beti ordutegi jakin batean izan behar dituenik. Ondorio horietarako, irakasleak bateragarritasunerako eskarian edo baimenean adierazitako ordutegia hartuko da kontuan, eta ez dira aintzat izango unibertsitatekanpora duen jarduerako baldintzetan izan ditzakeen aldaketak.
- Kontratuaren iraupena: 3 urte, nahiz eta kontratua amaitu ondoren, lanposturako deialdia egiten denean, lehiakideak beste kontratu bat lortu ahal izango duen irakasle elkartu moduan, lanpostu horretan bertan zein besteren batean. Ez dago mugarik bata bestearen atzean kontratuak egiteko.

Mota honetako irakasleak kontratatzeke deialdi publikoa egitean, sarri gertatzen da plaza eman gabe utzi behar izatea ez dagoelako lehiakide onarturik. Horrelakoetan, irakaslanean sortutako premiak aldi baterako betetzeko xedez, deialdi publikoa egingo da bitarteko irakasle kontratatua kontratatzeke.

Deitutako plaza elebiduna eta Medikuntza eta Odontologia Fakultateko irakasgune batekoa izanik hutsik geratzen bada, EHUko Gobernu Kontseiluak, euskararen arloan eskumena daukan errektorearen aldeko txostena izanda, aldi baterako, ikasturte bukaera are, elebakar (gaztelania) bihurtzea erabaki dezake. Medikuntza eta Odontologia Fakultateko irakasguneetan plazak era horretara betetzea salbuespena izango da, eta horrela egingo da baldin eta lehiakide elebidunik ez badago.

2.2.5. BITARTEKO IRAKASLE KONTRATATUA

Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legeko 25. artikulua eta Gobernu Kontseiluak 2004ko uztailaren 22an hartutako erabakian araututako irudia, ezaugarri hauek dituena:

- Mota honetako irakasleak honako egoeraren batean kontratatuko dira:
 - a) Irakasle funtzionarioaren edo kontratatu edo lan kontratudun irakasle baten plaza huts bateko irakaskuntza lana egiteko, aurrekontuz hornituta badago. Mota horretako plazak aldi baterako beteko dira araei jarraituz behin betiko bete arte.
 - b) Irakasleak, bere eskubideei jarraituz, lanpostua uzten duenean lanpostua gordeta izateko eskubidea izanda (gaixotasun baja edo lizentzia, amatasuna edo aitatasun baja edo lizentzia, zerbitzu betekizunak, zerbitzu bereziak, lizentzia sabatikoak, lana eta familia bateragarri egiteko legean jasotako eszedentziak, lanaldi murrizketak eta abar) edo irakats betebeharrak murriztuta izatea edo betebehar horietatik salbuespena egotea dakarten kargu akademikoak betetzen dagoenean irakaslea. Hori horrela izango da edozein izanda ere irakasleak unibertsitatearekin daukan lotura profesionala, funtzionarioak barne.
- Bitarteko legez kontratatua izateko, beharrezkoa izango da lizentziatu, ingeniari edo arkitekto titulua izatea edo horien titulu baliokideren bat izatea. Uztailaren 26ko 774/2002 Dekretuko IV. eranskinean zehaztutako jakintza arloetarako unibertsitateko diplomatu, arkitekto tekniko edo ingeniari tekniko titulaziodunak ere kontratatu ahal izango dira.
- Arduraldi partzalean bitarteko irakasle kontratatuak bateragarritasun baimena baldin badauka beste jarduera bat egiteko, lehentasuna izango du beste jarduerako ordutegiarekin bateragarri diren taldeak hartzeko. Dena dela, horrek ez du esan nahi irakasle horrek horretarako eskubidea duenik, ez eta eskolak beti ordutegi jakin batean izan behar dituenik. Ondorio horietarako, irakasleak bateragarritasunerako eskarian edo baimenean adierazitako ordutegia hartuko da kontuan, eta ez dira aintzat izango unibertsitatekanpora duen jarduerako baldintzetan izan ditzakeen aldaketak.
- Arduraldia: osoa edo partziala.



2.3.- PROMOZIOA

Otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoak, zehaztuta ditu lan kontratuko irakasle kategoriak, batzuk aldi baterako kontratatzeak eta beste batzuk, iraunkor kontratatzeak. Kategoria horien bidez unibertsitatean landu beharreko karrera zehaztu da.

Legean bertan, irakasle osoaren irudia zehaztean (19. artikulua), arautu dago irakasle irudi hori izango dela irakasle agregatuen promoziorako bidea.

Bestalde, aldi baterako kontratatutako irakasle atxiki izanda, edo, irakasle lankide iraunkor izanda, badago aukera irakasle agregatu kategoriara promozionatzeko.

Lan kontratu iraunkorreko irakasle kategorietara sartzeko prozedura eta zenbait irakasle kategoriek promoziorako dituzten aukerak oraindik garatu gabe daude.

2.4.- EGONKORTASUNA

Gaur egun Euskal Herriko Unibertsitatearekin aldi baterako loturaren bat duten irakasleen egoera egonkortzeko xedez, sindikatuen ordezkariekin negoziatuko da zein bide jarraitu administrazioko kontratua eta lan kontratua duten irakasleen egoera iraunkor bihurtzeko, betiere, indarreko legedia kontuan hartuta.

3. JARDUNBIDERA KO ARAU OROKORRAK.

- Irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordeak urtero-urtero argitaratuko ditu zein epe zehaztu den arautegi honetan aipatzen diren eskariak egin ahal izateko. Eskariak unibertsitateko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, eta ez dira onartuko baldin eta ez badira aurkeztu ikasturte bakoitzerako zehaztutako epearen barruan.
- Euskal Herriko Unibertsitateak sei hilabete dauzka irakasleen eta ikertzaileen lanpostuen zerrendan egin nahi diren aldaketei buruzko erabakiak hartzeko. Horretarako eskumena daukan organoari eskaera aurkezten zaionean hasten da sei hilabeteko epea; hau da, eskaera EHUko erregistro orokorretan aurkezten denean, UIBri edo irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordeari zuzendua (batzordeko burua).
- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 12.1. artikuluan dioenez (urtarrilaren 13ko 4/1999 legeak aldatu zuen aipatutako legea), eskumenari ezin zaio uko egin, eta eskumena berena duten administrazioko organoek baliatuko dute, eskuordetzan ematen ez bada edo goragokoak eskumena bereganatzen ez badu.
- Lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamena beteta dagoen lanpostu bati badagokio eta Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak aurkako iritzia eman badu edo Gobernu Kontseiluak onartu badu, horren berri eman beharko zaio interesatuari (hartu egin duela egiaztatzen duen bideren baten bidez), erabakiaren kontra jarri daitezkeen errekurtsioak zeintzuk diren jakinarazita.
- Plazak sortzeko, plaza hutsak aldatzeko edo plaza hutsak betetzeko proposamenei buruzko txostena egin beharko du euskararen arloko eskumena daukan errektoreordeak, plaza horien hizkuntza eskakizunari buruzkoa.



- Ikastegiko Batzarraren txostena eskatzen denean, txosten horren ordezkari Ikastegiko Batzarraren Batzarde Iraunkorraren txostena aurkeztu ahal izango da, EHUko Estatutuaren 276.2. artikuluan zehaztutakoari jarraituz. Irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordeak edo Unibertsitateko Irakasleen Batzardeak Ikastegiko Batzarraren txostena eskatu eta egutegiko 10 eguneko epean ez bada hartu, txostena aldekoa dela ulertuko da.
- EHUko behin-behineko Gobernu Kontseiluak 2003ko azaroaren 13an hartu zuen erabakiaren arabera, Unibertsitateko Irakasleen Batzardeak baimena dauka, presazko kasuetan, lanpostuen zerrendan aldaketak egiteko (plazak aldatzea eta plazak sortzea), baldin eta sailaren ahalmena handitzen ez bada eta sailaren aurrekontu gastuak gora egiten ez badu. Irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordeak egindako aldaketen berri eman beharko du egingo den hurrengo Gobernu Kontseiluan.
- Sei hilabeterik behin (ekainaren 30eko eta abenduaren 31ko dataekin) eguneratu egingo dira Irakasleen eta Ikertzaileen Lanpostuen Zerrendak, funtzionarioenak, administrazio kontratadunenak, zein lan kontratadunenak. Lanpostuen zerrenda horiek EHUko Gobernu Kontseiluak behin onartuta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera bidaliko dira (uztailaren 31 eta urtarrilaren 31 baino lehen, hurrenez hurren) gastua onar dezaten. Ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

4. IRAKASKUNTZAREN PLANGINTZA. IRAKASTEKO AHALMENA HANDITZEKO ESKARIAK.

Irakasleen arduraldiaren zenbaketa "urteka egingo da, irakasleek beren gain hartutako konpromisoak edozein izanda ere, baldin eta zerbitzuaren premiek horretarako aukera eskaintzen badute" (unibertsitateko irakasleen erregimenari buruzko apirilaren 30eko 898/1985 EDko 9. artikuluko 8. atala). Sailek, hala ere, ikasketa planen lauhileko egitura berriak eragindako arazoak konpondu beharko dituzte eta sor daitezkeen egoera berezietako irakaskuntza bermatu, ikasleen eskolez arduratuz beti. Edonola ere, irakaskuntza arduraldiaren banaketa desberdina, ikasketa planei eta ikerkuntza beharrei lotutako irizpideetan oinarritu beharko dena, ikasturte osoan indarrean egongo diren kontratuei baino ez zaie aplikatuko. Irakaslan osoa lauhilabete bakar batean pilatuta duten irakasleen kasuan, eta batez ere bigarren lauhilabetean dutenen kasuan, sailak hartu beharko du bere gain irakaslan hori irakaslea ordezkaria izan behar baldin bada. Izan ere, kasuan kasuko lauhilabeteari dagokion irakaslan baina ezingo luke hartu bere gain ordezkariak (inola ere ez ikasturte osoari dagokiona). Irakasle ordezkariaren eskola orduak aldatu egin ahal izango dira hurrengo ikasturteetan, betiere, kontratuan adierazitako mugak kontuan izanda. Edozelan ere, irakasle ordezkari bati eskola guztiak lauhileko batean pilatu ahal izateko, aurreikusita egon behar da kontratua ikasturte osoarako izango duela.

Sailak, irakaskuntza bertako irakasleen artean banatzerakoan, enborreko eta nahitaezko irakasgai guztiak irakatsiak izango direla bermatuko du, bai euskaraz -EHUK onartutako hizkuntza plangintza bat- bai gaztelaniaz, eta esleituta dituen ikasketa plan eta ikastegi guztietan. Irakasleek ikasi behar dituzten hautazko irakasgaien kopurua ere emango dela ziurtatu egin beharko da. Enborreko, nahitaezko eta hautazko irakaskuntza behar bezala banatu ondoren eskaini ahal izango ditu sailak hirugarren zikloko programetako irakasgaiak eta aukera askeko irakasgaiak.

Eskola orduak banatzerakoan, Saileko Kontseiluak kontuan izan beharko ditu laneko baldintzen arloko akordioak, horien arabera langileak asteko eskola orduak murrizteko eskubiderik daukan jakiteko eta, era berean, kontuan izan beharko du zein den irakaslearen egoera pertsonala, adibidez, doktorego tesia egiten dagoen.



Hirugarren zikloko lanagatik irakasleei dagozkien irakats betebeharrak kredituak ikasturte biren buruan zenbatuko dira ikerlanen kasuan, eta ikasturte bakoitza amaitzean doktorego ikastaroen kasuan.

Taldeen egitura

Irakats eskaintza eta irakasleen betebeharrak zehazteko prozedura bateratuan adierazten den bezala, ikastegiak erabaki behar dute, sailen iritzia entzunda, talde teoriko eta praktikoen tamaina eta kopurua, beti ere errealismoz jokatzuz, eta kontuan hartuta zenbat irakasle dituzten eta zelako ikasgelak dauden kasuan kasuko ikastegian.

Edozein ikastegitako taldeen egitura aldatu ahal izateko, beharrezkoa izango da ikasketa berrikuntza eta azpiegituraren arloan eskumena daukan errektoreordetzaren baimena. Ikastegiak emango dio hasiera tramiteari, ondoko hauen berri emanez: taldeek gaur egun duten tamaina eta izan dezaketena, ordutegiaren gorabeherak (goizeko eta arratsaldeko txandak, eta abar) eta lokalen erabilera. Beharrezkoa izango da irakaskuntza honen ardura beren gain duten sailek egindako txostena. Ikasketa berrikuntza eta azpiegituraren arloan eskumena daukan errektoreordetzak taldeen kopurua aldatzeko baimena emango du, beste errektoreordetza hauen txostena ikusi ondoren: Akademi Antolakuntzakoa -ikasketa planei buruzko txostena-, Euskarakoa (beharrezkoa izanez gero), eta Irakasleena -kasuan kasuko sailek duten plantillari buruzkoa eta taldeak aldatzeko proposamenak duen eragina-.

Titulazio eta plan berrietarako baimena eta horien ezarpena

Baldintza orokorren laburpen gisa, hauxe esan behar dugu: ezarri baino lehenago behar bezala onartuak izan diren titulazioetako irakasleen premiak baino ez direla hartuko kontuan, hau da, bai Eusko Jaurlaritzak bai EHUk onartutakoak. Premia hauetan, zuzenez gain, zuzenak ez direnak ere sartzen dira (beste titulazio batzuetan duten eragina, sail atalak, ikastegiak, eta abar).

Eskaintza elebiduna zabaltzea.

Irakats eskaintza eta irakasleen betebeharrak zehazteko prozedura bateratuan adierazita dagoen moduan, euskararen arloan eskumena daukan errektoreordetzak erabakiko du zein izango den ikasturte bakoitzean euskaraz egin daitekeen irakats eskaintza, euskaraz ikasteko eskubidea bere osotasunean bermatu ahal izateko Gobernu Kontseiluak onartutako irizpide eta helburuei jarraiki.

Bestelako justifikazioak

Ikasleen taldeen eraginez sortutako bestelako justifikazioak ere ontzat hartuak izan daitezke (desagertzeak dauden planek sortutakoak, esate baterako), salbuespen gisa eta behin-behineko eraginez.

IRAKASTEKO AHALMENA HANDITZEKO ESKARIAK TRAMITATZEKO PROZEDURA

Irakasteko ahalmena handitzea eskatzeko 10. eta 11. eranskinak bete behar dira.

Orokorrean, ikasketa plan berrien ezarpenarekin eta Euskararen Erabileraren Normalizaziorako Plangintzarekin lotuak dauden eskariak soilik izango dira kontuan.



Aurreko ataletan adierazitakoaren ondorioz, sailen batek plantilla gehitzeko beharra izango balu, proposaturiko irakats eskaintzari aurre egiteko, ikasturte bakoitzerako irakats eskaintza egiteko ezarrita dauden epeen barruan egin beharko lituzke eskariak. Horretarako eranskin hauek bete behar dira:

- **10. eranskina:** plaza berriak eskatzen badira, edota aurretik zegoen aldi baterako plaza finkatzea.

- **11. eranskina:** lanpostuen zerrendako plaza baten arduraldia luzatzea eskatzen bada.

Eskariak unibertsitateko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, zehaztutako epearen barruan.

Sailaren ahalmena handitzeko eskaera aldi baterako izan daiteke (ikasturte baterako edo gehiagorako), edo betiko.

Eskariak egingo dituzten sailek memoria ere aurkeztu beharko dute eranskinarekin batera, sailak dauzkan bitartekoez baliatuta premia berriei erantzutea ezinezkoa dela behar bezala justifikatzen duena. Argi eta garbi adierazi beharko da zeintzuk diren egin nahi diren aldaketak, aurreko ikasturtea oinarri hartuta.

Plaza berriak Medikuntza eta Odontologia Fakultateko irakasgune baterako badira, hau da, irakasgai klinikoak emateko, sailak adierazi beharko du zein ospitaletan eta zein medikuntza espezialitatetan eskaini behar diren zerbitzuak.

Irakasle eta ikertzaileen lanpostuen zerrendako aldaketa guztiek, hau da 10. eta 11. eranskinek, eragindako sail eta ikastegiaren txostena beharko dute.

Edonola ere, irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordeak edo Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak txostena eskatu eta kasuan kasuko sailak edo ikastegiak ez badu erantzuten hamar egunen buruan, proposatutako aldaketaren alde daudela ulertuko da.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 12.1. artikuluan dioenez (urtarrilaren 13ko 4/1999 legeak aldatu zuen aipatutako legea), eskumenari ezin zaio uko egin, eta eskumena berena duten administrazioeko organoek baliatuko dute, eskuordetzan ematen ez bada edo goragokoak eskumena bereganatzen ez bada.

Irakasleren batek arduraldia zabaltzea eskatuz gero, sailak kasuan kasuko tramiteak egin beharko ditu horretarako zehaztutako epean. Eskaria egiteko 11. eranskina bete beharko da eta saileko kontseiluak eta ikastegiak txostena egin beharko dute.

Eskaria, txostenekin batera, Unibertsitateko Irakasleen Batzordera bidali beharko da horretarako zehaztutako epearen barruan.

Eranskinak irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordetzara bidaliko dira, behar bezala beteta, eta, aldi berean, sistema informatikoan grabatuko da irakats eskaintzaren proposamena. Eranskin horiekin batera beste dokumentu aurkeztuko da, kontratatuko den irakaslearen berri emango duena edo arduraldia luzatu nahi zaion irakaslearen lanpostuarena, irakats eskaintzaren prozedura bateratuan ikastegiak egindako grabazioen arabera.



Irakasle plaza berriak sortzeko eskaria egin aurretik, sailek beren irakasleen artean arduraldi partzialeko kontratua izanik arduraldi osokoa lortu nahi duenik dagoen egiaztatuko du, betiere, kontratua arduraldi osokora aldatzeko aukerarik badago. Horrelakorik egonez gero, lehentasuna izango du arduraldia gehitzeak, baldin eta arduraldi partzialeko kontratuaren ezaugarriak (hizkuntza eskakizuna, jakintza arloa eta ikastegia) egokiak badira kontratua arduraldi osora aldatu eta premiak asetzeko.

UIBk, atal honetarako aurkez daitezkeen eskaerak ikusita, lehentasuna emango die arduraldia luzatzea eskatuz unibertsitateko irakasleen kidegoetako irakasleek egin dituzten eta oraindik onartzeke dauden eskariei (aurrekontuetan horretarako dirurik eta irakats premiarik badago).

Plazak aldi baterako betetzen ari diren irakasleen kasuan, plaza horiek finkatzeko eskaera egin dezakete sailek, irakaslanari aurre egin ahal izateko guztiz beharrezkoak direla uste badute. Horretarako, 10. eranskina beteko dute eta hauxe idatziko inprimakiaren goialdean: “..... kodea duen plaza finkatzea”. Eranskina irakasleen arloko errektoreordetzara bidaliko da eta, aldi berean, sistema informatikoan grabatuko da irakats eskaintzaren proposamena.

Aldi baterako plaza finkatzeak ez du ekarriko, inola ere, plaza horretan dagoen irakaslea finko egitea. Plaza horiek lehiaketa publikoaren bitartez beteko dira.

Euskararen arloan eskumena daukan errektoreordeak plaza berri guztiei buruzko txostena egin beharko du, plaza horien hizkuntza eskakizunari buruzkoa.

Gaztelaniazko hizkuntza eskakizuna duten aldi baterako plazak ez dira finkatuko, baldin eta plaza elebidun finkatuak betetzeko ezintasunaren ondorioz sortu baziren. Aldi baterako plaza horiek automatikoki amortizatzen dira beraien iraupena bukatzen denean, dagozkien plaza elebidunak (aldi baterako gaztelaniazko plazak lotuak zituztenak) betetzeko lehiaketa publikoa egin behar delarik.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak plaza berriaren edo arduraldia zabaltzearen eskaerari oniritzia emango balio, irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordeak Gobernu Kontseilura eramango luke proposamena.

UIBren txostena aurkakoa denean, batzorde horri eskuordetuko dio Gobernu Kontseiluak erabakia hartzeko ahalmena.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordea aurka azaldu bada eta eskaria beteta dagoen plaza baten arduraldia zabaltzeko izan bada, horren berri eman beharko zaio interesatuari (hartu egin duela egiaztatzen duen bideren baten bidez), erabakiaren kontra jarri daitezkeen errekursoak zeintzuk diren jakinarazita.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak eskaria ez onartzeko erabakia hartuz gero, interesdunak aukerako berraztertze errekursoa jar diezaiotke batzorde horri hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekursoa jarri hala dagokion administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakiaren jakinarazpena hartzen denetik kontaktzen hasita.

Arduraldi partzialeko kontratu baten arduraldia luzatu eta arduraldi osoko kontratu bihurtzen denean kontratuko kategoria aldatu egin behar bada, lehiaketa publikorako deia egingo beharko da plaza betetzeko. Arduraldi partzialeko plaza beteta badago, plaza hori betetzen ari den pertsonak kontratuari uko egiten diola adierazi beharko du beren-beregi, eta dokumentu hori arduraldia gehitzeko eskaerarekin batera aurkeztuko da.



Karrerako funtzionario baten arduraldia zabaltzeak sailean/jakintza arloan sortzen den lehenengo plaza hutsa amortizatzea dakar, kontuan izanda sailaren/jakintza arloaren egoera (kontratatuta daukan ahalmena, irakats betebeharrak eta aurrekontu nahikoa izatea); horrek, hala ere, ez du eragotziko arduraldi partzialeko kontratuen orduak murriztea edo aldi baterako kontratuak ez luzatzea epe-mugara heltzean, eta hori horrela egin ahal izango da irakats premiak behar bezala justifikatzen ez badira. Aipatutakoa gorabehera, azken neurri hori salbuespenetan baino ez da ezarriko, eta Gobernu Kontseiluak beren-beregi onartu beharko du sindikatuen ordezkariekin hitz egin ondoren.

Gogoan izan behar dugu 598/1985 Errege Dekretuak 15. artikuluan dioena:

“Unibertsitateko irakasleei ezin izango zaie baimenik eman beste jarduera batzuk egiteko, ez arlo pribatuan ez publikoan, baldin eta lanaldi osoko kontratua badute. Hori guztia, kalterik egin gabe Unibertsitatearen Erreformaren Legeak 11. artikuluan (gaur egun, abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoko 83. artikulua) eta 53/1984 Legeak 19. artikuluan zehaztutakoari”.

Horrela, bada, arduraldi osoko lanpostua hartu edo kontratua sinatu aurretik, funtzionarioak edo irakasle kontratatuak bateraezintasunei buruzko adierazpena egin beharko du.

5. IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN LANPOSTUEN ZERRENDAKO ALDAKETAK: IKASTEGIZ, SAILEZ, JAKINTZA ARLOZ, ARDURALDIZ, HIZKUNTZA ESKAKIZUNEZ EDO KATEGORIAZ ALDATZEA.

Beteta dagoen plaza baten ezaugarriren bat aldatu nahi bada irakasleen lanpostuen zerrendan – ikastegia, saila, jakintza arloa, arduraldia, hizkuntza eskakizuna, kategoria-, interesatuaren adostasuna agertu beharko da kasuan kasuko eranskinean (plaza betetzen ari den irakaslea den aldetik). Interesatua ez badago ados, bere alegazioak aurkeztu beharko dira eranskinarekin batera; edo, alegaziorik aurkeztu ezean, interesatuari eskatu arren erantzunik eman ez duela egiaztatzen duen agiria.

Sailak lanpostu zerrenda aldatu behar baldin badu proposatutako irakats eskaintzari aurre egin ahal izateko, horretarako beharrezko diren eskariak egin beharko ditu Irakats Eskaintza zehazteko ezarritako epearen barruan eta 11. eranskina betez.

Eskariak unibertsitateko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, zehaztutako epearen barruan.

Irakasle eta ikertzaileen lanpostuen zerrendako aldaketa guztiek eragindako sail eta ikastegien txostena beharko dute.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, 12.1. artikuluan dioenez (urtarrilaren 13ko 4/1999 legeak aldatu zuen aipatutako legea), eskumenari ezin zaio uko egin, eta eskumena berena duten administraziooko organoek baliatuko dute, eskuordetzan ematen ez bada edo goragokoak eskumena bereganatzen ez badu.

Edonola ere, irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordeak edo Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak txostena eskatu eta kasuan kasuko sailak edo ikastegiak ez badu erantzuten hamar egunen buruan, proposatutako aldaketaren alde daudela ulertuko da.

Lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamena plaza huts bati badagokio, euskararen arloan eskumena daukan errektoreordeak hizkuntza eskakizunari buruzko txostena egin beharko du.



Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak lanpostuen zerrenda aldatzeko eskaerari oniritzia emango balio, irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordeak Gobernu Kontseilura eramango luke proposamena.

Gobernu Kontseiluak onartzen badu lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamena, horren berri emango zaio interesatuari (hartu egin duela egiaztatzen duen bideren baten bidez), erabakiaren kontra jarri daitezkeen errekursoak zeintzuk diren jakinarazita. Era berean, jakinaren gainean jarriko dira kasuan kasuko saila eta ikastegia.

UIBren txostena aurkakoa denean, batzorde horri eskuordetuko dio Gobernu Kontseiluak erabakia hartzeko ahalmena.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak aurkako iritzia eman badu eta irakasle batek betetzen duen lanpostuen zerrendako plaza bat aldatzeko proposamena bada, horren berri eman beharko zaio interesatuari (hartu egin duela egiaztatzen duen bideren baten bidez), erabakiaren kontra jarri daitezkeen errekursoak zeintzuk diren jakinarazita. Era berean, kasuan kasuko ikastegia eta saila jakinaren gainean jarri beharko dira.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak eskaria ez onartzeko erabakia hartuz gero, interesdunak aukerako berraztertze errekurtoa jar diezaioteko batzorde horri hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri hala dagokion administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakiaren jakinarazpena hartzen denetik kontaktzen hasita.

Jakintza arloz, arduraldiz, hizkuntza eskakizunez edo kategoriaz aldatzen denean, eragindako ikastegiaren eta sailaren txostenak baino ez dira beharko; betiere, saila edo ikastegia ere aldatzen ez badira.

5.1.- IKASTEGIZ ALDATZEA

Irakasleek, plaza lehiaketaren bidez eskuratzen dutenean, ikastegi zehatz baterako lortzen dute; baina 898/1985 EDko 11. artikuluan ezarrita dagoenez, kasuan kasuko sailak esleiturik duen irakaskuntzaz arduratu beharko dute irakasleek, beste ikastegi batean izan arren. Sailek aldi baterako esleipenak egingo dituzte, hartutako akordioak behar bezala arrazoituz baina, erakunde bat garen aldetik, gure eginbeharra irakaskuntza bermatzea dela ahaztu gabe.

Sailak, arrazoi justifikatuak direla eta, bertako irakasleren bat (karrerako funtzionarioak, bitartekoak edo kontratatuak) langunez aldatzea komenigarria dela erabakiko balu, saileko kontseiluak eskaria egingo lioke irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordetzari, 11. eranskina betez. Ikastegiz aldatzeko eskarien kasuan, hasierako ikastegiak eta ikastegi berriak egindako txostenak azaldu beharko dira eranskinean, bai eta kasuan kasuko irakaslearen alegazioak ere. Saila aldatzen ez bada, kasuan kasuko sailaren txostena baino ez da azalduko.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordea ikastegiz aldatzeko proposamenaren alde agertzen bada, irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordetzak Gobernu Kontseilura bidaliko du aldekata proposamena.

Gobernu Kontseiluak onartzen badu lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamena, horren berri emango zaio interesatuari, erabakiaren kontra jarri daitezkeen errekursoak zeintzuk diren jakinarazita. Era berean, jakinaren gainean jarriko dira kasuan kasuko saila eta ikastegia.



UIBren txostena aurkakoa denean, batzorde horri eskuordetuko dio Gobernu Kontseiluak erabakia hartzeko ahalmena.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak aurkako iritzia eman badu eta beteta dagoen plaza bati dagokion ikastegia aldatzeko eskaria izan bada, horren berri eman beharko zaio interesatuari, erabakiaren kontra jarri daitezkeen errekurtsioak zeintzuk diren jakinarazita.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak eskaria ez onartzeko erabakia hartuz gero, interesdunak aukerako berraztertze errekurtsioa jar diezaiokie batzorde horri hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri hala dagokion administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakiaren jakinarazpena hartzen denetik kontaktzen hasita.

Era berean, kasuan kasuko ikastegia eta saila jakinaren gainean jarri beharko dira. Era berean, sailak eskaerarik ez egin arren irakats premiek hala eskatzen badute, UIBk proposatu ahalko du irakasle baten edo plaza huts konkretu baten langunea aldatzeko proposamena -edo kasua helduz gero, baita ikastegi batek ere, eskaera justifikatuz-, beti ere Estatutuetan eta aplikagarria den gainerako legerian adierazitako muga barruan eta kasuan kasuko interesatua eta saila entzunda.

5.2.- SAILEZ ALDATZEA

Irakasleek sailez aldatzeko egindako eskariak tramitatzeko ere 11. eranskina beteko da (hasierako sailaren eta sail berriaren txostena erantsiz). Ikastegia aldatzen ez bada, inprimakian hasierako ikastegiaren txostena bakarrik jarriko da. Sailez aldatu nahi den plaza beteta badago, interesatuaren iritzia entzun beharko da.

Aipaturiko bi sailen txostenak aldekoak badira, kasuan kasuko aldaketa sartu ahal izango dute sail biek irakats eskaintzaren proposamena egiterakoan.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordea sailez aldatzeko proposamenaren alde agertzen bada, irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordetzak Gobernu Kontseilura bidaliko du aldaketa proposamena.

Gobernu Kontseiluak onartzen badu lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamena, horren berri emango zaio interesatuari, erabakiaren kontra jarri daitezkeen errekurtsioak zeintzuk diren jakinarazita. Era berean, jakinaren gainean jarriko dira kasuan kasuko saila eta ikastegia.

UIBren txostena aurkakoa denean, batzorde horri eskuordetuko dio Gobernu Kontseiluak erabakia hartzeko ahalmena.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak aurkako iritzia eman badu eta beteta dagoen plaza bati dagokion saila aldatzeko eskaria izan bada, horren berri eman beharko zaio interesatuari, erabakiaren kontra jarri daitezkeen errekurtsioak zeintzuk diren jakinarazita. Era berean, kasuan kasuko ikastegia eta saila jakinaren gainean jarri beharko dira.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak eskaria ez onartzeko erabakia hartuz gero, interesdunak aukerako berraztertze errekurtsioa jar diezaiokie batzorde horri hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri hala dagokion administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakiaren jakinarazpena hartzen denetik kontaktzen hasita.



5.3.- JAKINTZA ARLOZ ALDATZEA.

Aldaketa hauek 11. eranskinaren bidez tramitatuko dira. Unibertsitateko irakasleen kidegoetako karrerako funtzionarioak direnean jakintza arloz aldatzen direnak, beharrezkoa da aldez aurretik Unibertsitateko Irakaskuntza Koordinatzeko Kontseiluaren aldeko erabakia izatea, bai eta Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Estatuko Agentziaren txostena ere (774/2002 Errege Dekretuko 2. Xedapen Iragakorra). Beraz, jakintza arloz aldatzeko eskaria Gobernu Kontseiluan onartu eta gero egingo den atxikipena aldi baterako izango da, eta horrela agerraraziko da Gobernu Kontseiluaren erabakian.

Eskaerarekin batera interesatuak, alde batetik, idatzi bat aurkeztu beharko du aldaketa zergatik eskatzen duen azalduz; eta, bestetik, curriculum vitae arautua.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordea jakintza arloz aldatzeko proposamenaren alde agertzen bada, irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordetzak Gobernu Kontseilura bidaliko du aldaketa proposamena.

Gobernu Kontseiluak onartzen badu lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamena, horren berri emango zaio interesatuari, erabakiaren kontra jarri daitezkeen errekursoak zeintzuk diren jakinarazita. Era berean, jakinaren gainean jarriko dira kasuan kasuko saila eta ikastegia.

UIBren txostena aurkakoa denean, batzorde horri eskuordetuko dio Gobernu Kontseiluak erabakia hartzeko ahalmena.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak aurkako iritzia eman badu eta beteta dagoen plaza bati dagokion jakintza arloa aldatzeko eskaria izan bada, horren berri eman beharko zaio interesatuari, erabakiaren kontra jarri daitezkeen errekursoak zeintzuk diren jakinarazita. Era berean, kasuan kasuko ikastegia eta saila jakinaren gainean jarri beharko dira.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak eskaria ez onartzeko erabakia hartuz gero, interesdunak aukerako berraztertze errekursoa jar diezaioteko batzorde horri hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekursoa jarri hala dagokion administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakiaren jakinarazpena hartzen denetik kontatzen hasita.

5.4.- ARDURALDIZ ALDATZEA (ARDURALDIA MURRIZTEA).

Zirkular honetako laugarren atalean jasota dago arduraldia zabaltzeko eskarietarako prozedura.

Arduraldia murriztu egin nahi denean, tramiteak sailak egin behar ditu, unibertsitateko irakasleen kidegoetako funtzionarioen, administrazioko kontratua daukatenen edo lan kontratua daukatenen eskariz.

Horretarako, 11. eranskinarekin batera, irakaslearen eskariari buruz sailak eta ikastegiak egindako txosten arrazoitua ere aurkeztu beharko da (aldekoa izan ala ez izan). UIBk eskaera guztiei buruzko txostena egin beharko du.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordearen txostena aldekoa bada, Gobernu Kontseilura igorriko du proposamena irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordetzak, onartua izan dadin.

Gobernu Kontseiluak onartzen badu lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamena, horren berri emango zaio interesatuari, erabakiaren kontra jarri daitezkeen errekursoak zeintzuk diren jakinarazita. Era berean, jakinaren gainean jarriko dira kasuan kasuko saila eta ikastegia.



UIBren txostena aurkakoa denean, batzorde horri eskuordetuko dio Gobernu Kontseiluak erabakia hartzeko ahalmena.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak aurkako iritzia eman badu eta beteta dagoen plaza bati dagokion arduraldia aldatzeko eskaria izan bada, horren berri eman beharko zaio interesatuari, erabakiaren kontra jarri daitezkeen errekursoak zeintzuk diren jakinarazita. Era berean, kasuan kasuko ikastegia eta saila jakinaren gainean jarri beharko dira.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak eskaria ez onartzeko erabakia hartuz gero, interesdunak aukerako berraztertze errekurtoa jar diezaioke batzorde horri hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri hala dagokion administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakiaren jakinarazpena hartzen denetik kontaktzen hasita.

5.5.- HIZKUNTZA ESKAKIZUNEZ ALDATZEA.

Gobernu Batzarrak 2002ko maiatzaren 23an EHUⁿ Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiria eskuratzeko Arautegia onartu zuen (uztailaren 11ko EHAA). Horren arabera, irakasle batek euskaraz irakasteko gaitasuna egiaztatu eta bere lanpostuaren hizkuntza eskakizuna aldatu nahi bada, atxikita duen sailarekin hitz egingo du, sailak lehenbailehen lanpostuen zerrendan hizkuntza eskakizuna aldatzeko eskaria egin dezan. Horretarako, 11. eranskina bete eta gaitasun ziurtagiria erantsi beharko dio.

Hutsik dagoen lanpostu baten hizkuntza eskakizunaren aldaketa eskatuko balitz, irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordeak euskararen arloan eskumena daukan errektoreordeari eskatuko lioke txostena.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordea hizkuntza eskakizunez aldatzeko proposamenaren alde agertzen bada, irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordetzak Gobernu Kontseilura bidaliko du aldaketa proposamena.

Gobernu Kontseiluak onartzen badu lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamena, horren berri emango zaio interesatuari, erabakiaren kontra jarri daitezkeen errekursoak zeintzuk diren jakinarazita. Era berean, jakinaren gainean jarriko dira kasuan kasuko saila eta ikastegia.

UIBren txostena aurkakoa denean, batzorde horri eskuordetuko dio Gobernu Kontseiluak erabakia hartzeko ahalmena.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak aurkako iritzia eman badu eta beteta dagoen plaza bati dagokion hizkuntza eskakizuna aldatzeko eskaria izan bada, horren berri eman beharko zaio interesatuari, erabakiaren kontra jarri daitezkeen errekursoak zeintzuk diren jakinarazita. Era berean, kasuan kasuko ikastegia eta saila jakinaren gainean jarri beharko dira.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak eskaria ez onartzeko erabakia hartuz gero, interesdunak aukerako berraztertze errekurtoa jar diezaioke batzorde horri hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri hala dagokion administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakiaren jakinarazpena hartzen denetik kontaktzen hasita.



5.6.- KATEGORIAZ ALDATZEA.

Abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak aldaketa garrantzitsuak eragin ditu langile kontratatuen araubidean.

Irakasle elkartuaren irudia, arduraldi osokoa eta administrazioko kontratuduna, desagertu egingo da, baina bere horretan dirau LOU indarrean sartu zenean kontratatuta zeuden irakasleen egoerak, gehienez ere lau urterako legea indarrean sartu zenetik (2002ko urtarrilaren 13a).

Bestalde, irakasle lankideak kontratatu ziren jakintza arlo guztietan, uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretuko bigarren xedapen iragankorraren babesean.

Hala ere, arduraldi osoko irakasle elkartu baten kontratua edo aurreikusitako jakintza arloetakoa ez den irakasle lankide baten kontratua hutsik geratzen bada, lanpostuen zerrenda aldatu beharko da lanpostua berriro bete baino lehenago.

Gogoan izan behar da, era berean, unibertsitate eskolako titular eta katedradunen plazak 12 jakintza arlotarako baino ezin direla deitu (uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretua, III. eranskina). Hau da: 110 Arkitektura Eraikuntzak; 187 Gorputz Adierazpidearen Didaktika; 189 Musika Adierazpidearen Didaktika; 193 Plastika Adierazpidearen Didaktika; 255 Erizaintza; 300 Arkitekturako Adierazpen Grafikoa; 305 Ingeniaritzako Adierazpen Grafikoa; 413 Fisioterapia; 505 Kartografia Geodesia eta Fotogrametria Ingeniaritza; 535 Ingeniaritza Elektrikoa; 647 Optika; eta 813 Gizarte Langintza eta Gizarte Zerbitzuak.

Beraz, unibertsitate eskolako titular edo katedradun plaza hutsik geratzen bada eta plaza ez bada uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretuko III. eranskinean zehaztatutako jakintza arloren batekoa, beharrezkoa izango da plaza berriro bete aurretik lanpostuen zerrendan kategoria aldatzea.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordea kategoriaz aldatzeko proposamenaren alde agertzen bada, irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordetzak Gobernu Kontseilura bidaliko du aldaketa proposamena.

UIBren txostena aurkakoa denean, batzorde horri eskuordetuko dio Gobernu Kontseiluak erabakia hartzeko ahalmena. Horrelakoetan ez denez posible jatorrizko ezaugarri berberekin betetzea plaza, irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordeak plaza amortizatzeko eskaria egingo dio Gobernu Kontseiluari.

Bestetik, beste arrazoi batzuk oinarri hartuta, sailak eskaria egin dezake kategoria aldatzeko hutsik dauden plazei edo aldi baterako kontratatuta dauden irakasleek betetzen dituzten plazei.

Kategoria aldaketak kontratatuta dagoen irakasle batek betetzen duen plazari eragiten badio, lehiaketa publikoa egingo da plaza betetzeko. Beraz, kategoria aldatzeko eskariarekin batera plaza hori betetzen dagoen irakasleak kontratuari uko egiten diola adierazten duen agiria aurkeztu beharko da.

Lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamena egin nahi bada 11. eranskina beteko da, eta kasuan kasuko sailaren eta ikastegiaren txostena aurkeztuko.

Euskararen arloan eskumena daukan errektoreordeak lanpostuari esleitutako hizkuntza eskakizunari buruzko txostena egin beharko du.



6.- IRAKASLEEN KIDEGOETAKO PLAZAK.

6.1. UNIBERTSITATEKO IRAKASLEEN KIDEGOAK.

Unibertsitateko irakasle funtzionarioak ondorengo kidegoetan daude banatuta:

- a).- Unibertsitateko katedradunak.
- b).- Unibertsitateko irakasle titularrak.
- c).- Unibertsitate eskolako katedradunak.
- d).- Unibertsitate eskolako irakasle titularrak.

Unibertsitateko katedradunek eta irakasle titularrek irakasteko eta ikertzeko gaitasun osoa izango dute. Unibertsitate eskoletako katedradunek eta titularrek, berriz, irakasteko gaitasun osoa izango dute eta, doktoreak badira, baita ikertzeko gaitasun osoa ere.

Unibertsitateen Lege Organikoa eta uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretua, unibertsitateko irakasleen kidegoetan sartzeko estatuko gaitasun sistema arautzen duena, indarrean sartu zirenean (2002ko urtarrilaren 13an eta abuztuaren 8an, hurrenez hurren), indargabetuta geratu ziren ordura arte indarrean egon ziren arauak, bereziki unibertsitateko irakasleen kidegoetako plazak betetzeari buruzkoak.

Irakasleak unibertsitatean sartzeko prozedurak gaitasun proben sistemari jarraitu behar dio, kategoriaren eta jakintza arloaren arabera.

Beharrezkoa izango da proba hori gaindituta izatea unibertsitateko irakasle funtzionarioen kidegoetara sartzeko deitutako lehiaketetan parte hartu ahal izateko. Unibertsitatean sartzeko lehiaketa egin ondoren lehiakidea aukeratu, izendapena egin eta plaza jabetzan behin hartuta, unibertsitateko irakasle kidegoetako karrerako funtzionario bihurtuko da interesduna.

Plaza lortzeko lehiaketan, kidego eta jakintza arlo horretan gaitasun agiria dutenek hartu ahal izango dute parte, bai eta kidego horretako funtzionarioek eta kategoria txikiago edo handiagoko unibertsitateko irakasle doktoreek ere, edozein izanda ere administrazio egoera.

Orokorrean, unibertsitateko katedradunen kidegoan gaitasun agiria lortu ahal izateko, beharrezkoa izango da unibertsitateko irakasle titularra edo unibertsitate eskolako katedradun izatea hiru urteko antzintasunarekin eta doktore titulua izatea.

Aipatutakoa gorabehera, Unibertsitateko Irakaskuntza Koordinatzeko Kontseiluak erabaki dezake lehiakideak ez dituela baldintza horiek bete behar, baldin eta doktore bada zortzi urteko antzintasunarekin eta ANECK/Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziak irakaskuntzaren eta ikerketaren arloan egindako jardueri buruzko aldeko txostena eman dio.

Unibertsitateko irakasle titularren kidegoetarako eta unibertsitate eskoletako katedradunetarako gaitasun agiria lortu ahal izateko, doktore titulua izan beharko da eta kasuan kasuko probak gainditu.

Unibertsitate eskolako irakasle katedradunen kidegoan sartzeko lehiaketak eta gaitasun probak Gobernuak, Unibertsitateko Irakaskuntza Koordinatzeko Kontseiluaren txostena ikusita, adierazitako jakintza arloetarako deituko dira: Gaur egun, jakintza arlo horiek uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretuan (III. eranskinean) daude zehaztua, eta, hain zuzen ere, honakoak dira: 110 Arkitektura Eraikuntzak; 187 Gorputz Adierazpidearen Didaktika; 189 Musika Adierazpidearen Didaktika; 193 Plastika Adierazpidearen Didaktika; 255 Erizaintza; 300 Arkitekturako Adierazpen Grafikoa; 305



Ingeniaritzako Adierazpen Grafikoa; 413 Fisioterapia; 505 Kartografia Geodesia eta Fotogrametria Ingeniaritza; 535 Ingeniaritza Elektrikoa; 647 Optika; eta 813 Gizarte Langintza eta Gizarte Zerbitzuak.

Unibertsitate eskolako irakasle titularren kidegoan sartzeko lehiaketetan parte hartu ahal izateko beharrezko den gaitasun agiria lortzeko, lizentziatu, arkitekto edo ingeniari titulua izan beharko da edo, salbuespen moduan, Gobernuak (Unibertsitateko Irakaskuntza Koordinatzeko Kontseiluaren txostena kontuan hartuta) adierazitako jakintza arloetarako, nahikoa izango da unibertsitateko diplomatu, arkitekto tekniko edo ingeniari tekniko titulua izatea. Horrez gain, kasuan kasuko proba gaindu beharko da. Gaur egun, kategoría honetako gaitasun probetarako zehaztuta dauden jakintza arloak uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretuko IV. eranskinean daude zehaztuta, eta, hain zuzen ere, honakoak dira: 110 Arkitektura Eraikuntzak; 187 Gorputz Adierazpidearen Didaktika; 189 Musika Adierazpidearen Didaktika; 193 Plastika Adierazpidearen Didaktika; 255 Erizaintza; 300 Arkitekturako Adierazpen Grafikoa; 305 Ingeniaritzako Adierazpen Grafikoa; 413 Fisioterapia; 505 Kartografia Geodesia eta Fotogrametria Ingeniaritza; 535 Ingeniaritza Elektrikoa; 647 Optika; eta 813 Gizarte Langintza eta Gizarte Zerbitzuak.

Unibertsitate eskolako irakasle titularren kidegoan sartzeko lehiaketak eta gaitasun probak Gobernuak, Unibertsitateko Irakaskuntza Koordinatzeko Kontseiluaren txostena ikusita, adierazitako jakintza arloetarako deituko dira: Gaur egun, jakintza arlo horiek uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretuan (III. eranskinean) daude zehaztua, eta, hain zuzen ere, honakoak dira: 110 Arkitektura Eraikuntzak; 187 Gorputz Adierazpidearen Didaktika; 189 Musika Adierazpidearen Didaktika; 193 Plastika Adierazpidearen Didaktika; 255 Erizaintza; 300 Arkitekturako Adierazpen Grafikoa; 305 Ingeniaritzako Adierazpen Grafikoa; 413 Fisioterapia; 505 Kartografia Geodesia eta Fotogrametria Ingeniaritza; 535 Ingeniaritza Elektrikoa; 647 Optika; eta 813 Gizarte Langintza eta Gizarte Zerbitzuak.

774/2002 Errege Dekretuak, uztailaren 26koak (abuztuaren 7ko EBO), iraila, urtarrila eta maiatzaren finkatzen ditu unibertsitate bakoitzak Unibertsitateko Irakaskuntza Koordinatzeko Kontseiluari hutsik dituen eta bete beharra duten plaza jakinarazteko, plaza horien deialdia egin ahal izateko eta gaitasun probak egin daitezen.

Hori dela eta:

1.- Unibertsitateko irakasleen kidegoetako plaza berriak edo plaza hutsak betetzea eskatu nahi duten sailek irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordetzara bidali beharko dute eskaera maiatzaren 1etik 31ra bitartean, urriaren 1etik 31ra bitartean eta otsailaren 1etik 28ra bitartean; eta onartuz gero, tramite guztiak egin ondoren, Unibertsitateko Irakaskuntza Koordinatzeko Kontseiluko Idazkaritzara bidaliko da.

2.- Ez da egingo lehiaketarik unibertsitateko irakasleen kidegoetako plaza hutsak bitarteko izaeraz betetzeko.

6.2.- UNIBERTSITATEKO IRAKASLEEN KIDEGOETAKO LANPOSTU HUTSAK BETETZEKO DEIALDIA.

Unibertsitateko irakasleen kidegoetako plaza betetzeko proposamena egitean beharrezkoa izango da kasuan kasuko sailaren eta ikastegiaren txostena.

Eskaria egiteko inprimaki hauek beteko dira:



1. **eranskina:** unibertsitateko katedra hutsak betetzeko deialdia (proposamena).
2. **eranskina:** unibertsitate eskolako katedra hutsak betetzeko deialdia (proposamena).
3. **eranskina:** unibertsitateko irakasle titularren lanpostu hutsak betetzeko deialdi publikoa (proposamena).
4. **eranskina:** unibertsitate eskolako irakasle titularren lanpostu hutsak betetzeko deialdi publikoa (proposamena).

Unibertsitateko irakasleen kidegoetako plaza hutsak betetzeko eskariei buruzko iritzia eman beharko du Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak, unibertsitateko irakasleen kidegoetako plaza berriei ezartzen zaizkien irizpide berak kontuan hartuta.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak plaza hutsa betetzeari oniritzia emango balio, irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordeak Gobernu Kontseilura eramango luke proposamena.

UIBren aurka azaltzen denean, batzorde horri eskuordetuko dio Gobernu Kontseiluak erabakia hartzeko ahalmena.

6,3.- UNIBERTSITATEKO KATEDRA BERRIAK.

Sailek urtean unibertsitateko katedra berri bat eskatu ahal izango dute fakultate, goi eskola tekniko edo unibertsitate eskoletarako. Baldintza hauetako bat bete beharko da horretarako:

- 1.- EHUUn irakaskuntza duen jakintza arlo bateko unibertsitateko katedrarik ez egotea.
- 2.- Eskaria egiten duenean sailak ondoko ratioa berdindu edo gainditu beharko du, eskatzen duen katedra berria kontuan hartuta:

$$(UT+EK-1)/(UK+1) \geq 3$$

Irizpidea aplikatzerakoan arduraldi partzialak neurtuko dira.

3.- Aurreko aukerak agortuta, beste irizpide honetara jo ahal izango da unibertsitateko katedra berriak eskatzeko: lanpostua betetzeko lege baldintzak betetzen dituen unibertsitateko irakasle titular batek edo unibertsitate eskolako katedradun batek -ikerketako bi seiurteko onartuta dauzkanak-lehiaketan parte hartzeko nahia adierazten badu formalki.

Sail bakoitzak unibertsitateko katedra bat baino ezingo du eskatu urtean.

Sailak katedra bat baino gehiago eskatuz gero, Saileko Batzordeak katedra gutxien dituen jakintza arlorako eskatutakoaren aldeko txostena emango du.

Saileko jakintza arlo guztiek katedradun kopuru bera baldin badute, Saileko Kontseiluak meritu gehien dituen hautagaiaren aldeko txostena egingo du, horretarako irizpide objektiboak erabilita.

Sailak 5. eranskina beteko du katedra berria eskatzeko, eta zein irizpideren arabera eskatzen duen ere adierazi beharko du beren-beregi.



Unibertsitateko katedra berria eskatu duen saileko irakasle titular batek edo unibertsitate eskolako katedradun batek beteko balu katedra hori, irakasle hori ordura arte betetzen ari zen lanpostua amortizatuko litzateke lehiaketaren ondoren. Sailekoa ez den lehiakide batek beteko balu katedra, bertan hutsik geratuko litzatekeen lehenengo plaza amortizatuko litzateke. Ezingo da eskatu beste katedra bat irizpide berari jarraiki, plaza amortizatu arte.

6.4.- UNIBERTSITATE ESKOLAKO KATEDRA BERRIAK

- Sailek unibertsitate eskolako katedra berriak eskatu ahal izango dituzte unibertsitate eskoletarako, baldin eta unibertsitate eskolako irakasle titular doktoreak gutxienez hiru urte badarama doktore.

Unibertsitate eskolako katedra berria eskatu duen saileko unibertsitate eskolako irakasle titular batek beteko balu katedra hori, irakasle hori ordura arte betetzen ari zen lanpostua amortizatuko litzateke lehiaketaren ondoren. Sailekoa ez den lehiakide batek beteko balu katedra, amortizatu egingo da sailean hutsik geratzen den lehenengo plaza.

- Sailek unibertsitate eskolako katedra berriak eskatu ahal izango dituzte unibertsitate eskoletarako, baldin eta kontratatu doktoreak gutxienez hiru urte badarama doktore.

Unibertsitate eskolako katedra berria eskatu duen saileko irakasle kontratatu batek beteko balu katedra hori, irakasle hori ordura arte betetzen ari zen lanpostua amortizatuko litzateke lehiaketaren ondoren.

Lanpostua sailekoa ez den lehiakide batek hartzen badu, irakasle kontratatu moduan kontratatzeko eskaintza egingo zaio sailekoari, behin-behineko izaeraz eta aurrekontuan horretarako dirurik badago.

Sailak 6. eranskina beteko du katedra berria eskatzeko, eta interesatuaren idatzia aurkeztuko du horrekin batera.

Unibertsitate eskolako katedradunen kidegoan sartzeko lehiaketak eta gaitasun probak jakintza arlo hauetarako izango dira: 110 Arkitektura Eraikuntzak; 187 Gorputz Adierazpidearen Didaktika; 189 Musika Adierazpidearen Didaktika; 193 Plastika Adierazpidearen Didaktika; 255 Erizaintza; 300 Arkitekturako Adierazpen Grafikoa; 305 Ingeniaritzako Adierazpen Grafikoa; 413 Fisioterapia; 505 Kartografia Geodesia eta Fotogrametria Ingeniaritza; 535 Ingeniaritza Elektrikoa; 647 Optika; eta 813 Gizarte Langintza eta Gizarte Zerbitzuak.

Sail bakoitzak unibertsitate eskolako katedra bat baino ezingo du eskatu urtean.

Sailean eskari bat baino gehiago badago unibertsitate eskolako katedradun plaza lortzeko, Saileko Kontseiluak meritu gehien dituen hautagaiaren aldeko txostena egingo du, horretarako irizpide objektiboak erabilita.

6.5.- IRAKASLE KONTRATATUEN PLAZAK ALDATZEAREN ONDORIOZ SORTUTAKO IRAKASLE TITULARREN PLAZA BERRIAK ETA UNIBERTSITATEKO IRAKASLE TITULARREN PLAZA BERRIAK BETETZEKO ESKARIAK.

- Irakasle kontratatuen plazak -hutsak zein beteta daudenak- unibertsitateko irakasle titularren plaza bihurtzeko, 7. eranskina bete beharko da. Interesatua ados dagoela adierazten duen idatzia ere aurkeztu beharko da eranskinarekin batera. Irakasle titularren plaza bihurtuko den plaza betetzen ari den irakasle kontratatuak doktore titulua izan behar du, gutxienez hiru urte lehenago eskuratua.



Unibertsitateko irakasle titularren plaza berria eskatu duen saileko irakasle kontratatu batek betekoko balu plaza hori, irakasle hori ordura arte betetzen ari zen lanpostua amortizatuko litzateke lehiaketaren ondoren.

Lanpostua sailekoa ez den lehiakide batek hartzen badu, irakasle kontratatu moduan kontratatzeko eskaintza egingo zaio sailekoari, behin-behineko izaeraz eta aurrekontuan horretarako dirurik badago.

- Unibertsitateko irakasle titularren plaza berriak eskatu ahal izango dira 7. eranskinaren bidez, baldin eta hautagai den unibertsitate eskolako irakasle titular doktoreak gutxienez hiru urte badarama doktore.

Lehiaketaren ondorioz unibertsitateko irakasle titularren plaza deialdia egin duen saileko irakasle batek betekoko badu, amortizatu egingo da plaza. Unibertsitateko irakasle titularren plaza sailekoa ez den lehiakide batek betekoko balu, amortizatu egingo da sailean hutsik geratzen den lehenengo plaza.

6.6.- IRAKASLE KONTRATATUEN PLAZAK ALDATZEAREN ONDORIOZ SORTUTAKO UNIBERTSITATE ESKOLAKO IRAKASLE TITULARREN PLAZA BERRIAK.

Irakasle kontratatuaren plazak -hutsak zein beteta daudenak- unibertsitate eskolako irakasle titularren plaza bihurtzeko, 7. eranskina bete beharko da. Interesatua ados dagoela adierazten duen idatzia ere aurkeztu beharko da eranskinarekin batera. Unibertsitate eskolako irakasle titularren plaza bihurtuko den plaza betetzen ari den irakasle kontratatuak arduraldi osoko lanaldia izan behar du, gutxienez hiru urtean.

Unibertsitate eskolako irakasle titularren plaza berria eskatu duen saileko irakasle kontratatu batek betekoko balu plaza hori, irakasle hori ordura arte betetzen ari zen lanpostua amortizatuko litzateke lehiaketaren ondoren.

Lanpostua sailekoa ez den lehiakide batek hartzen badu, irakasle kontratatu moduan kontratatzeko eskaintza egingo zaio sailekoari, behin-behineko izaeraz eta aurrekontuan horretarako dirurik badago.

Unibertsitate eskolako irakasle titularren kidegoan sartzeko lehiaketak eta gaitasun probak jakintza arlo hauetarako izango dira: 110 Arkitektura Eraikuntzak; 187 Gorputz Adierazpidearen Didaktika; 189 Musika Adierazpidearen Didaktika; 193 Plastika Adierazpidearen Didaktika; 255 Erizaintza; 300 Arkitekturako Adierazpen Grafikoa; 305 Ingeniaritzako Adierazpen Grafikoa; 413 Fisioterapia; 505 Kartografia Geodesia eta Fotogrametria Ingeniaritza; 535 Ingeniaritza Elektrikoa; 647 Optika; eta 813 Gizarte Langintza eta Gizarte Zerbitzuak.

6.7.- UNIBERTSITATEAN SARTZEKO LEHIAKETAK.

Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak -Unibertsitate Erreformari buruzko abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoaren ildo berari jarraituz- unibertsitaterako zuzenbide berria zehaztu zuen, eta autonomia handiagoa eman zitzaion. Horrela, bada, lege berriari jarraituz, unibertsitateek beren premien arabera irakasle eta ikerlarien plazak lehiaketa bidez betetzeko aukera izateaz gain, lehiaketa horiek arautzeko eskumena ere badute.

Lehiaketa horiei buruzko arautegia honakoetan oinarrituta egingo da: abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa, Unibertsitatei buruzkoa, 63. eta 66. artikulua (abenduaren 24ko EBO); uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretua, unibertsitateko irakasle funtzionarioen kidegoetan sartzeko gaitasun sistema eta kasuan kasuko lehiaketak garatzeko modua arautzen duena, 1. artikulua eta 14-19 artikulua (2002ko abuztuaren 7ko EBO); EHUKo Estatutuaren 34. artikulua eta ondorengoak



(Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren abenduaren 23ko 322/2003 Dekretuaren bidez onartuak; 2004ko urtarrilaren 12ko EHAA).

2004ko urtarrilaren 25ean, Eusko Legebiltzarrak 3/2004 Legea, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoa, onartu zuen eta I. tituluko II. kapituluan unibertsitatean erabiliko diren hizkuntzei buruzkoak daude zehaztuta, eta 11.4. artikuluan jasota dago Eusko Jaurlaritzak, hezkuntzako eskumena duen sailak proposaturikoaren arabera, irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren berezitasunei egokitzeko arau espezifikoak onartuko dituela. Artikulu horretan aurrera eginda, zehaztuta dago Eusko Jaurlaritzak eta unibertsitateak, indarrean dagoen araudia kontuan hartuta, hautaketa, sarbide eta ebaluaketa prozesuak arau horiei egokiturik egotea bermatu behar duela. Gai berari lotuta, Lege bereko 99.2.e) artikulua honakoa dio: "Hizkuntza gaitasuna egiaztatzen ez duenak ezingo du inolaz ere euskaraz irakatsi beharra duen lanpostu bat bete."

Otsailaren 25eko 3/2004 Legeko xedapen gehigarrietan lehenengoak dio unibertsitateko irakasle kidegoetako lanpostuetarako deialdietan, lege horretako 16. artikuluan kontratatutako irakasle eta ikertzaileentzat ezarritakoa aplikatuko dela. Artikulu horretan, bestalde, jasota dago kontratazioak lehiaketa publiko bidez egingo direla, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatuz.

Ikuspegi zabalagotik aztertuta, eta kontuan izanda unibertsitatea ere administrazio publikoa dela, oinarri hartu beharko da azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldarazia).

Bestalde, funtzio publikoari buruzko arautegia ere bete beharko da, batez ere, abuztuaren 2ko 30/1984 Legea, Funtzio Publikoa eta Estatuko Administrazio Nagusiaren Zerbitzuetako Langileen Sarbidea Aldatzeari buruzkoa eta Estatutuko Administrazio Nagusiko Funtzionario Zibilen Lanpostuak Betetzeari eta Sustapenari buruzkoa (martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua).

I.- DEIALDIAK

PLAZAK BETETZEA

1.- Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak erabakiko du sarrera lehiaketa bidez bete behar diren plazetarako deialdia egitea.

2.- Deialdian honakoak zehaztu behar dira: kidegoa; jakintza arloa; zein sail eta ikastegira dagoen atxikia plaza; hizkuntza eskakizuna; arduraldia; zein irakaslan edo ikerketa lan egin behar duen plaza lortzen duenak lehenengo eta bigarren zikloko titulu ofiziala lortzeko bete beharreko gairen batekin lortuta; lehiaketa ebatziko duen batzordearen osaera eta, behar izanez gero, beste xehetasun batzuk. Hori guztia 774/2002 Errege Dekretuko 14.3. artikuluan zehaztutakoarekin bat. Era berean, lehiaketa deitzeko erabakian jasota agertuko dira lehiaketa ebatziko duen batzordeko titularrak eta ordezkioak.

3.- Uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretuko 2.1. artikuluan zehaztutako jakinarazpena egiten denetik bi urteko epean, bete egin beharko da deitutako plaza, baldin eta lehiaketan onarturik egon bada. Hori horrela izango da hurrengo paragrafoan eta lehenengoan zehaztutakoari kalterik egin gabe.

4.- Lehiaketak hilabeteko epean ebatzi beharko dira, deialdia Estatutuko Buletin Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, 774/2002 Errege Dekretuko 14.3. artikuluari jarraituz.



LEHIAKETETARAKO DEIA

Unibertsitateko Irakasleen Kidegoetara sartzeko lehiaketetarako deiak unibertsitateak egingo ditu errektorearen erabaki bidez. Deialdia egiteko honako baldintzak bete beharko dira:

- a) aldez aurretik, plaza Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak onartu behar du, bai eta plaza betetzeko deialdia egitea ere.
- b) deialdia egin aurretik plazaren berri eman behar zaio Unibertsitateko Irakaskuntza Koordinatzeko Kontseiluko Idazkaritza Nagusiari
- c) Unibertsitateen Lege Organikoan eta ezar daitekeen gainontzeko legedian zehaztutakoa bete behar da.

DEIALDIA ARGITARATZEA ETA DEIALDIAREN EDUKIA

1.- Baldin eta EHUK gaitasun proba gaindituta dutenen arteko lehiaketa bidez beteko den plazaren bat baldin badauka Unibertsitateko Irakasleen Kidegoan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian jarriko du deialdiaren iragarkia.

2.- 774/2002 Errege Dekretuko 14.1. artikuluan zehaztutakoari jarraituz, lehiaketarako deia egiteko epea hamabost egunekoa izango da, aipatutako Errege Dekretuko 3.3. artikuluan jasotako gaitasun probetarako deiarri buruzko erabakia Estatutuko Buletin Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita.

3.- Unibertsitateko Irakaskuntza Koordinatzeko Kontseiluari jakinarazitako plazaren bat hutsik badago, unibertsitateak plaza hori betetzeko lehiaketarako deia egin beharko du (lehenagotik egina ez badauka) hogeitau eguneko epean, aipatutako Errege Dekretuko 3.1. artikuluan zehaztutako kidego eta jakintza arlorako gaitasun proba gainditu dutenen zerrenda Estatutuko Buletin Ofizialean argitaratu den egunetik kontatzen hasita. Hori guztia 774/2002 Errege Dekretuko 14.2. artikuluari jarraituz.

4.- Unibertsitatara sartzeko lehiaketetarako deialdia Estatutuko Buletin Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dira eta, nahi izanez gero, Errektoregoko Lehiaketa Ataleko iragarki oholean, unibertsitatearen web orrian eta unibertsitatearen iritziz egoki den beste edozein lekutan. Edozelan ere, eskariak aurkezteko epea deialdia EBOn argitaratzen den eguna erreferentziazat hartuta kontatuko da.

HAUTAGAIEK BETE BEHARREKOAK

1.- Hautaketa probetara aurkeztu ahal izateko, hautagaiek honako baldintzak bete behar dituzte:

- a) Espainiarra izatea, edo Europako Batasuneko kide diren beste herrietako herritarra; edo, Europako Batasunak hitzartu eta Espainiak sinatu dituen nazioarteko hitzarmenen arabera, langileen zirkulazio askea aplikagarria den herrietako herritarra. Langileen zirkulazio aske hori Europako Erkidegoa Eratzeko Itunean dago definituta.
Espainiako eta Europako Batasuneko estatueta nazionalitatea duen pertsonen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute (zuzenbidez banaturik ez badaude), bai eta euren ondorengoek eta ezkontidearenek ere (ezkontideak zuzenbidez banaturik ez badaude), baldin eta ondorengook 21 urtetik beherakoak badira edo adin horretatik goragokoak izan arren euren menpe bizi badira. Eskubide bera izango dute Europako Batasunaren nazioarteko itunetan xedatutako estatueta nazionalitatea duten pertsonen familiakoek ere, baldin eta itun horiek Espainiak berretsitakoak badira.



Europako Batasuneko estatuetakoa ez diren atzerritarrek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta euren estatuak aitortzen badie espainiarrei unibertsitateko irakaslanetan aritzeko gaitasun legala, Espainiako unibertsitateko irakasleen kidegoetako funtzionarioen baldintza berberetan. Gaitasun legala aitortuta duten ala ez jakiteko, Kanpo Arazoetako eta Administrazio Publikoetako ministerioen txostena eskatuko du Unibertsitateko Irakaskuntza Koordinatzeko Kontseiluak.

- b) Hamazortzi urte beteta izatea, eta erretiroko adinera heltzeke egotea, hau da, 70 urtera.
- c) Kasuan kasuko irakasleen kidegoko lanari dagozkion eginkizunak betetzea eragozten duen gaixotasunik eta eragozpen fisiko edo psikikorik ez izatea.
- d) Diziplina espedientearen bidez estatuko administrazio orokorreko zerbitzutik edo autonomi, erakunde eta herrietako administrazioetatik aldendua ez izatea, eta eginkizun publikoak betetzeko gaitua izatea. Espainiar nazionalitatea ez dutenek ez dute izan beharko kasuan kasuko estatuko funtzio publikoan jardutea eragozten dien diziplina zehapenik edo kondena penalik.
- e) Doktore titulua izatea, unibertsitate eskoletako irakasle titularren plazetarako izan ezik. Horietarako lizentziatu, arkitekto edo ingeniari titulua izan beharko da; edo, salbuespen moduan, uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretuko IV. eranskinean agertzen diren jakintza arloetarako, unibertsitateko diplomatu, arkitekto tekniko edo ingeniari teknikoaren titulua edo baliokidea.

2.- Betebehar espezifikoak:

- a) Gaitasun probak gaindituta izatea, kasuan kasuko unibertsitateko irakasleen kidegorako eta arlorako, uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretuko 15. artikulua dioenari jarraiki.

Abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoko 63. artikuluko 2. ataleko bigarren paragrafoaren arabera, gaitasun probak gainditu ondoren honako hauek hartu ahal izango dute parte kasuan kasuko kidegoan eta plazan sartzeko lehiaketetan, Euskal Herriko Unibertsitatearen plaza bat eskuratzeko: kasuan kasuko kidego eta jakintza arlo bereko funtzionarioak; unibertsitateko irakasleen kidegoetako kategoria bereko edo goragoko funtzionarioak, baldin eta izendapena abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa indarrean sartu aurrekoa bada (2002 urtarrilaren 12a); eta, baita ere, aipatutako legea indarrean sartu ondoren izendatu zirenak, baldin eta lehiaketan parte hartzeko epearen azken eguna baino lehenagokoa bada izendapena, euren administrazio egoera edozein izanda.

- b) Plaza elebidunetarako, euskaraz irakasteko gaitasun agiria dutela egiaztatu beharko da, euskararen arloan eskumena daukan errektoreordeak 2002ko ekainaren 5ean emandako erabakiari jarraituz (uztailaren 11ko EHAA). Euskaraz irakasteko gaitasuna titulu baliokideen bidez (aipatutako erabakiko 9. artikulua) edo merituz bidezko baliokidetasunaren bidez (aipatutako erabakiko 10. artikulua) eginez gero, baliokidetzako titulua edo merituz bidezko baliokidetasuna eskariak aurkezteko azken eguna baino lehen lortutakoa izan behar da.

3.- Uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretuko 17.7. artikulua dioenez, kasuan kasuko plaza betetzeko lehiaketarako deia egin duen unibertsitatean edo beste unibertsitate batean diharduten kategoria eta jakintza arlo bereko irakasleek ezingo dute hartu parte lehiaketa horretan, baldin eta ez badituzte eman gutxienez bi urte benetan lanean bertan.

4.- EHU lanean diharduten karrerako funtzionarioak ezingo dira aurkeztu plaza baten lehiaketara, eurek betetzen ari diren plazaren ezaugarri berberak badauzka (kategoria, jakintza arloa, saila, ikastegia eta hizkuntz eskakizuna).



5.- Langileen zirkulazio librea aplikatzen den beste estatuetakoa herritarren kasuan, ez badute egiaztatzen hautatze prozesuan zehar gaztelania dakitela, baldintza hori betetzen dutela ziurtatzera zuzendutako proba espezifikoak egingo dituzte, lehiaketak ebatziko dituzten batzordeek ezarriko dituztenak (maiatzaren 18ko 543/2001 Errege Dekretuko 9. artikulua, abenduaren 23ko 17/1993 Legeari buruzkoa).

6.- Artikulu honetan jasotako betebeharrak eskariak aurkezteko epea amaitzen denerako eduki beharko dira beteta, eta horiek betetzen izaten jarraitu beharko da kargua hartzerakoan.

LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO ESKARIAK

1.- Lehiaketan parte hartu nahi dutenek eskaria bidaliko diote Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreari, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean ezarritako edozein jardunbide erabiliz, deialdi hau Estatuko Buletin Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko den hamabost egun balioduneko epearen barruan. Eskaria behar bezala betetako instantziaren bidez egingo da, unibertsitateak emandako instantzia ereduaren arabera. Instantziarekin batera lehiaketan parte hartzeko beharrezkoak diren betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira.

2.- Hautagaiek azterketarako eskubideak ordaindu beharko dizkiote EHUri; ordaindu beharreko tasak aurrekontu ekitaldi bakoitzerako zehaztuko dira Unibertsitatearen aurrekontuetan.

Dena dela, azterketa eskubideak ordaindu arren, lehiaketan parte hartzeko instantzia aurkeztu beharko zaio errektoreari, behar bezala beteta eta epearen barruan.

Eskariak aurkezteko epean azterketarako eskubideak ordaindu ez dituzten lehiakide guztiak lehiaketatik kanpo geratuko dira, eta ez da beste eperik zabalduko tasok ordaintzeko.

3.- Eskariarekin batera dokumentu hauek aurkeztuko dira:

a).- Nortasun agiriaren fotokopia erkatua, Espainiako nazionalitatea daukatenean.

Espainiako nazionalitatea izan ez arren lehiaketan parte hartzeko eskubidea daukaten lehiakideek euren nazionalitatea akreditatzen duen dokumentuaren fotokopia erkatua aurkeztu behar dute, bai eta, beharrezkoa denean, ahaidetasuna akreditatzen duten dokumentuak ere. Era berean, ahaidetasuna gorago aipatu den estatu bateko herritar batekin izanik herritar horren kargura daudenean edo horren menpe bizi direnek ere egoera hori akreditatzen duen dokumentua aurkeztu behar dute. Bestalde, lehiaketan parte hartzeko eskubidea daukatenean ezkontideak direlako, aipatutako dokumentuez gain, zuzenbidez banaturik ez daudela dioen zinpeko aitortpena edo promesa aurkeztu beharko dute.

b) Betebehar akademiko espezifikoak betetzen direla akreditatzen duten dokumentuen fotokopia erkatua.

c) Azterketa eskubideak ordaindu direla egiaztatzen duen dokumentua.

4.- Plaza elebiduna bada, lehiakideak beren-beregi adierazi beharko du eskaeran parte hartuko duen ala ez euskaraz irakasteko gaitasun agiria eskuratzera zuzendutako probetan.



ONARTUEN ETA KANPORATUEN BEHIN BEHINEKO ZERRENDAK

1.- Eskariak aurkezteko epea amaitu ondoren, lehiakide onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrenda emango du argitara unibertsitateak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Bertan adieraziko da zein izan den kanporatzearen arrazoia, eta jakinaraziko da interesatuek hamar egun balioduneko epe luzaezina izango dutela akatsa zuzentzeko. Hala egiten ez dutenek eskubide guztiak galduko dituzte. Lehiakide onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioak jartzeko epea ere hamar egun baliodunekoa izango da.

Erabakia argitara daiteke baita ere Errektoregoko Lehiaketen Ataleko iragarki oholetan, unibertsitatearen web orrian eta unibertsitatearen iritziz egoki diren beste toki batzuetan; baina, edonola ere, akatsak zuzentzeko eta erreklamazioak jartzeko epeak erabakia EHAAn argitaratutako egunera egokituko dira.

2.- Plaza elebiduna bada, lehiakideek euskararen jakite maila egiaztatu beharko dute euskararen arloan eskumena daukan errektoreordearen 2002ko ekainaren 5eko erabakian zehaztutako moduan (uztailaren 11ko EHA). Hala egingo ez duten lehiakideak kanporatuak izango dira.

Beraz, lehiakideren batek eskatzen badu euskaraz irakasteko gaitasun agiria eskuratzera zuzendutako probak egitea, lehiakide onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrenda argitaratu baino lehenago egingo dira proba horiek.

Euskaraz irakasteko gaitasuna titulu baliokideen bidez (aipatutako erabakiko 9. artikulua) edo meritu bidezko baliokidetasunaren bidez (aipatutako erabakiko 10. artikulua) eginez gero, baliokidetutako titulua edo meritu bidezko baliokidetasuna eskariak aurkezteko azken eguna baino lehen lortutakoa izan behar da.

ONARTUEN ETA KANPORATUEN BEHIN BETIKO ZERRENDAK

1.- Errektoreak, interesatuek aurkeztutako dokumentuak aztertu ondoren, lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda onartzen duen erabakia emango du, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dena. Erabakia argitara daiteke baita ere Errektoregoko Lehiaketen Ataleko iragarki oholetan, unibertsitatearen web orrian eta unibertsitatearen iritziz egoki diren beste toki batzuetan, baina, edonola ere, akatsak zuzentzeko eta erreklamazioak jartzeko epeak erabakia EHAAn argitaratutako egunera egokituko dira.

Erabaki hau izapide egintza kualifikatua da eta bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke EHUko errektoreari, erabakia EHAAn argitaratu eta hilabeteko epearen barruan, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 107. artikuluan eta hurrengoetan jasotako moduan (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen aipatutako legea); edo, bestela, zuzenean aurka egin daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan.

Lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda onartuko duen erabakian adierazi beharko da, baita ere, aipatutako aurkezpen ekitaldiaren data unibertsitateko web orrian eta Lehiaketen Atalean argitaratuko dela.

2.- Ezingo da jarri lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrendaren aurkako errekurtsorik lehenago ez bada aurkeztu behin-behineko zerrendaren kontrako erreklamaziorik, egintza irmo eta onetsia baita.



II.- BATZORDEAK

BATZORDEAREN OSAERA ETA KIDEEN IZENDAPENA

1.- Unibertsitatean sartzeko lehiaketak ebatziko dituzten batzordeen osaera honakoa izango da: presidentea eta idazkaria, Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak proposatu eta errektoreak izendatuak; eta kasuan kasuko plazari dagokion jakintza arloko bost irakasle funtzionario edo, halakorik egon ezean, kideko jakintza arloko bost irakasle funtzionario (bost kide horiek 774/2002 Errege Dekretuko 16. artikuluan zehaztutako baldintzak bete behar dituzte), horietako hiru plazari dagokion saileko kontseiluak proposatuak.

Europako Batasuneko kide diren herrietako unibertsitateetako irakasleek jardun ahal izango dute unibertsitatean sartzeko lehiaketak ebatziko dituzten batzordeetan, baldin eta euren merezimenduak eta kategoria unibertsitateetako katedradun edo irakasle titularren edo unibertsitate eskoletako katedradun edo irakasleen parekoak badira.

2.- Saileko Kontseiluak sei kide proposatuko dizkio errektoreari: hiru mahaikide titular eta hiru mahaikide ordezko. Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak, bestalde, 4 proposatuko dizkio: presidente eta bere ordezkoa, eta idazkaria eta bere ordezkoa.

3.- Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak presidentea eta idazkaria, eta horien ordezkoak proposatuko ditu unibertsitateko irakasle funtzionarioen taldetik aukeratuak, eta kasuan kasuko plazari dagokion jakintza arlokoak edo, halakorik egon ezean, kideko jakintza arlokoak. Kide horiek atal honetako 4. eta 6. azpiataletan zehaztutako baldintzak bete behar dituzte. Horretarako, sailak Unibertsitateko Irakasleen Batzordeari zerrenda justifikatu bat bidaliko dio 4 funtzionario proposatuz batzordeko presidente izateko eta beste lau, idazkari izateko. Presidente eta idazkari izateko proposatutako funtzionarioek zehaztutako baldintzak bete behar dituzte eta, gainera, ezin izango dira proposatuta egon Saileko Kontseiluko kide izateko.

Plazaren ezaugarriak kontuan hartuta, Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak onartu egin dezake sailak batzordeko presidente edo idazkari izateko aurreko paragrafoan zehaztutako funtzionario gehiago edo gutxiago proposatzea.

4.- Batzordeak honako osaera izango du kontuan izanda lehiaketara deitu den unibertsitateko kidegoetako irakasle funtzionarioen plazaren kategoria.

a) Unibertsitate Eskolako irakasle titularren plazetarako lehiaketetan batzordeko presidentea unibertsitateko edo unibertsitate eskolako katedraduna izango da; idazkaria eta batzordekideak, berriz, unibertsitateko katedradunak, unibertsitateko irakasle titularrak, unibertsitate eskolako katedradunak edo unibertsitate eskolako irakasle titularrak.

b) Unibertsitateko irakasle titularren edo unibertsitate eskolako katedradun plazetarako lehiaketetan batzordeko presidentea unibertsitateko katedraduna izango da; idazkaria eta batzordekideak, berriz, unibertsitateko katedradunak, unibertsitateko irakasle titularrak edo unibertsitate eskolako katedradunak.

c) Unibertsitateko katedradunen plazetarako lehiaketetan, unibertsitateko bost katedradun.



5.- Batzordearen osaera dela-eta artikuluko honetako 1. ataleko 1. paragrafoan zehaztutakoaren ondorioetarako, unibertsitateko irakaslea Europar Batasuneko beste estatu batekoa bada, Saileko Kontseiluak Unibertsitateko Irakaskuntza Koordinatzeko Kontseiluaren Idazkaritza Nagusiak egindako txostena aurkeztu beharko du, ikasle horrek Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoan jasotako unibertsitateko irakasle funtzionarioen talderen bati dagokion maila duela egiaztatzeko.

6. - Unibertsitatean Sartzeko Batzordeko kideek, bai titularrek bai ordezkoez, ondokoa izan beharko dute aitortuta (salbuespena izango dira Europako Batasuneko beste estatu batzuetako unibertsitateko irakasleak):

- a) Unibertsitateko katedradunen kasuan, gutxienez ikerlanean emandako aldi bi, abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuak, unibertsitateko irakasleen ordainsariei buruzkoak, zehaztutakoari jarraituz.
- b) Unibertsitate eskolako irakasle titularren edo katedradunen edo unibertsitateko irakasle titularren kasuan, gutxienez ikerlanean emandako aldi bat, abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuak, unibertsitateko irakasleen ordainsariei buruzkoak, zehaztutakoari jarraituz.

7.- Batzordeko kideak martxoaren 10eko 365/1995 Errege Dekretuak, Estatutuko Administrazio Nagusiko Funtzionario Zibilen administrazio egoerari buruzko arautegia onartzekoak, 2. artikuluan zehaztutako edozein administrazio egoeratan egon daitezke, eszedentzia egoera eta funtzioak etenda izatea salbu. Hori horrela izango da errektoreak onarpena eman eta hautaketa prozesuak irauten duen bitartean.

Batzordeko kide titularren batek eszedentzia hartuko balu, funtzioak eten egingo balitzaizkio edo funtzionario izateari utziko balio, batzordeko kide izateari utzi eta ordezkoa jarriko da.

Batzordeko kide ordezkoren batek eszedentzia hartuko balu, funtzioak eten egingo balitzaizkio edo funtzionario izateari utziko balio, ordezkoren artetik kategorian handien eta antzintasun handien daukanak hartuko du haren lekua. Egoera horiek eraginda ez bada posible batzordea eratzea, beste batzorde bat izendatuko da.

8.- Abstentziorako edo errekusaziorako arrazoirik badago, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. eta 29. artikuluetan zehaztutakoari jarraituko zaio.

Kideei batzordean aritzea eragozten dien arrazoirien bat gertatzen denean (prozeduran parte ez hartzeko egoeran daudelako, errefusatuak izan direlako, edo besteren bat), ordezkoko kideak arituko dira euren ordezkari.

Ordezko kideak ere ezin badu jardun batzordean, prozeduran parte ez hartzeko edo errefusatuak izateko egoeraren batean dagoelako, kategorian eta antzintasun handieneko ordezkoa arituko da haren ordezkari. Ordezko guztiek ezinezkoa izango badute batzordean aritzea eta ezinezkoa bada batzordea ondorengo artikuluan azaldutako moduan eratzea, beste batzorde bat izendatuko da.

Unibertsitatean sartzeko lehiaketetako kideak errefusatzeko epea hilabetekoa izango da, Estatuko Buletin Ofizialean argitaratuko denetik hasita (lehiaketako deialdian bertan), baldin eta errefusatzeko arrazoia bat-batean jakin duela alegatzen ez badu interesatuak, edo bat-batean gertatutako arrazoia ez bada. Halakoetan interesatuak errefusatzeko arrazoiaren berri izaten duenean hasiko da epea.



BATZORDEA ERATZEA

- 1.- Batzordea eratzeko beharrezkoa izango da kide guztiak bertan egotea. Ekitaldi horretara joango ez diren kide titularrek batzordeko kide izateari utziko diote eta ordezkoa izendatuko da aurreko paragrafoetan adierazitako irizpideei jarraituz.
- 2.- Batzordeak balioz jardun dezan, batzordea eratzen duten kideen erdiak hartu beharko du parte, hau da, hiru kidek. Hiru kide horien artean batzordeburuak eta idazkariak egon behar dute nahitaez.
- 3.- Batzordeko kideren bat ez badago lehiakide baten proban, batzordeko kide izateari utziko dio.
- 4.- Batzordeko kideek zerbitzu ordainak hartzeko eskubidea dute, eta ordainketok Euskal Herriko Unibertsitatearen kargura egingo dira.
- 5.- Batzordearen jardun administratiboa eta gestio ekonomikoa idazkariak egingo du, unibertsitateko administrazioko langileen laguntzarekin.

III.- PROBAREN NONDIK NORAKOAK

AURKEZPEN EKITALDIA

- 1.- Unibertsitatean sartzeko lehiaketak, arautegi honetan aipatutakoak, EHUk adierazten duen lekuan egingo dira.
- 2.- Batzordea hiru hilabeteko epean eratu beharko da, unibertsitatean sartzeko lehiaketaren deialdia Estatuko Buletin Ofizialean argitaratzen denetik hasita. Batzordeburuak, gainerako kideak kontsultatu ondoren, erabaki bat argitaratuko du web orrian eta Deialdi eta Lehiaketan Ataleko iragarki oholean, deia egiten beherago aipatzen direnei ekitaldi desberdinetarako. Batzordeko kide titularrei erabaki horren berri emango zaie, ekitaldiaren eguna baino gutxienez hamabost egun natural lehenago. Deia honako hauei egingo zaie:
 - a) Batzordeko kide titular guztiei eta, batzordea eratzeko beharrezkoa bada, kasuan kasuko ordezkoei. Batzordea eratu ondoren, lehiakideak ebaluatzeko erabiliko diren irizpide espezifikoak onartuko dira, eta argitara eman. Irizpide espezifiko horiek deialdian jasotako plazaren ezaugarrietara egokituko dira, eta baremo orokorrean zehaztutako balorazioaren araberrakoak izango. Deialdian jakinaraziko da batzordea zein egunetan, zein ordutan eta zein tokitan eratuko den.
 - b) Lehiaketan parte hartzeko lehiakide onartuei, lehiakideen aurkezpen ekitaldira bertaratzeko, adierazita ekitaldia zein egunetan, zein ordutan eta zein tokitan izango den. Batzordea eratzeko ekitaldirako jarritako dataren eta aurkezpen ekitaldirako jarritako dataren arteko aldea bi egun baliodunekoak izango da gehienera.

Atal honetan ezarritako epea igarotzen bada (hiru hilabete) batzordea eratzeke, ordezkotzat batzordeburuak batzordeburu titularra ordezkatzeko du ondorio guztietarako.

- 3.- Aurkezpen ekitaldia jendaurrean egingo da, eta lehiakideek probari dagozkion dokumentuak aurkeztuko dituzte. Bertan azalduko da zehatz-mehatz proba zer izango den eta probaren nondik norakoei buruzko azalpen guztiak ere emango dira. Lehiakideek jarduteko ordena ere bertan erabakiko da, zozketaz, eta proba egiten hasteko tokia, eguna eta ordua ezarriko dira. Lehiakideek



eskatu ahal izango dute, idatziz, 24 orduko aldea egotea aurkezpen ekitaldiaren eta proba egiteko orduaren artean.

Batzordeburuak aurkezpen ekitaldian jakinaraziko du, halaber, lehiakideek zein epe izango duten gainerako lehiakideek proba baino lehenago aurkeztutako dokumentuak aztertzeko.

4.- Batzordeak adituen iritzia eskatu ahal izango du, lehiakideen merezimenduei buruzkoa. Dena dela, iritzi horiek ez dira izango lotesleak eta lehiaketako aktari erantsiko zaizkio.

5.- Aurkezpen ekitaldia egin eta handik hamabost egun naturalera hasiko da proba.

DOKUMENTUAK ETA PROBAREN NONDIK NORAKOAK

1.- Batzordeek lehiakide guztiek aukera berberak dituztela bermatuko dute, eta merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatuko. Batzordeek, erabakia hartzeko, kontuan hartuko dute lehiakideen jardura irakaskuntza eta ikerketan eta, oro har, curriculum akademiko eta profesionala; eta plazaren ezaugarrietara egokitzen diren ala ez aztertuko du.

2.- Lehiakideek honako dokumentu hauek emango dizkiote batzordeko buruari aurkezpen ekitaldian:

- a) Curriculum vitae (bost ale), eta curriculumean aipatutakoa egiaztatzen duten argitalpenen eta dokumentuen ale bana.
- b) Lehiakideak plaza eskuratzen badu aurrera eramango duen irakaskuntzako proiektua (bost ale). Unibertsitateak deialdian zehaztutako espezifikazioetara egokituko da proiektu hori.
- c) Lehiakideak plaza eskuratzen badu aurrera emango duen ikerketako proiektua (bost ale). Unibertsitate eskoletako irakasle titularren plazak betetzeko lehiaketetan ez da aurkeztu behar ikerketako proiekturik.

3.- Unibertsitatean sartzeko lehiaketetan proba bakarra egingo da, jendaurrean. Lehiakideek honako hauek azalduko dizkiote batzordeari proba horretan: euren historialean aipatutako merezimenduak (lan arlokoak, akademikoak, irakaskuntzakoak eta ikerketakoak); bete nahi duten plazarako daukaten kualifikazioa prestakuntzaren aldetik; eta irakaskuntzako proiektua eta, aurkeztu behar izanez gero, ikerketakoa. Lehiakideek behar beste denbora izango dute ahozko azalpen horretarako, baina 60 minututik pasatzeke.

Batzordeak, jarraian, eztabaida izango du lehiakide bakoitzarekin, gehienez ere bi ordukoa, honako hauen gainean: aipatutako merezimenduak, irakaskuntzako proiektua eta, aurkeztu behar izan badu, ikerketakoa.

4.- Unibertsitatean sartzeko lehiaketetan baremo orokor hau aplikatuko da:

- a) Historiala (lan arlokoa, akademikoa, irakaskuntzakoa eta ikerketakoa): 70 puntu

Atal honetan ondoko hauek baloratuko dira (zerrenda itxia ez den arren): titulu akademikoak; irakaskuntzan betetako lanpostuak; ikerketaren alorrean egindako jardura; ikerketan egindako jardura; argitalpenak (liburuak, artikulak, eta bestelakoak); beste ikerlan batzuk; diru laguntzaz egindako ikerketa proiektuak; kongresuetan aurkeztutako komunikazioak eta txostenak; patenteak; emandako eta hartutako ikastaroak eta mintegiak; izandako bekak, laguntzak eta sariak; enpresetan egindako jardura eta izandako lanbide liberalak; betetako kargu akademikoak eta erakunde mailakoak; irakaskuntzako edo ikerketako beste merezimendu batzuk eta bestelakoak.



Plaza elebakarretan (gatzelania) merezimendutzat hartu ahal izango da euskara jakitea, eta 70 puntu horietatik 10 eman ahal izango dira, deialdiko 6.6. eranskinean argitaratutako baremoa aplikatzearen ondorio izango den puntuazio konkretuari jarraiki.

b) Irakaskuntzako proiektua eta, aurkeztu behar izan bada, ikerketakoa: 30 puntu.

5.- Lehiakide bakarra aurkezten bada probara, lehiakide horrek ahozko azalpena eta eztabaida egin behar ez dituela erabaki ahal izango du batzordeak. Erabakia aho batez hartu beharko du eta, halakoetan, zuzenean egingo da lehiakidea izendatzeko proposamena.

6.- Proba bukatuta, batzordea bilduko da eta batzordeko kide bakoitzak botoa emango du, lehiakide bakoitzaren balorazio kuantifikatua jasoko duen txosten arrazoituarekin batera. Balorazio hori baremo orokorrari eta batzordeak onartutako irizpide espezifikoei jarraiki egingo da. Batzordeko kide guztiak iritzi berekoak badira, batzordeko kideen txostenen ordeztu txosten bakarra egin ahal izango du batzordeak, kuantifikatua eta arrazoitua.

IV.- PROPOSAMENA ETA IZENDAPENA

Batzordearen proposamena

1.- Plazak beteko proposamena kasuan kasuko batzordeak egindako txostenari eta kuantifikazioari jarraiki egingo da, eta gehienez ere hogeita hamar egun balioduneko epean egingo da, probaren datatik kontatzen hasita. Proposamena proba egin den tokian emango da argitara, bai eta Deialdi eta Lehiaketan Ataleko iragarki oholean ere.

2.- Proposamenean lehiakide bakoitzaren balorazioa jasoko da, arrazoitua eta zenbakiz puntuatua.

3.- Unibertsitatean sartzeko lehiaketetako batzordeek lehiakideen zerrenda ordenatua proposatuko diote errektoreari, aurreko atalean adierazitako moduan, izendapenak egin ditzan.

4.- Batzordeetako kideak ezingo dira abstenitu botazioetan.

5.- Lehiaketetako plazak ezingo dira utzi emateke, baldin eta onartutako lehiakideren bat probetara aurkeztu bada.

6.- Plaza betetzeko izendatu ez diren lehiakideek ez dute izango inolako eskubiderik beste plaza huts batzuk betetzeko.

IZENDAPENAK

1.- Batzordeko idazkariak bost egun izango ditu, batzordearen jarduna bukatuko denetik, lehiaketako espediente administratiboa aurkezteko unibertsitateko Idazkaritza Nagusian. Espedientean honako dokumentuok bildu beharko dira:

- a) Batzordea eratzeko bilerako akta eta horren ondoren egindako bilera guztietako aktak. Akta horietan jarduera nagusiak jasoko dira.
- b) Aurkezpen ekitaldian lehiakideek presidenteari emandako dokumentu guztiak.
- c) Proba ebaluatzen aplikatu diren irizpide espezifikoen berri ematen duen dokumentua.
- d) Txostenak eta balorazioa zenbakitan emana.
- e) Plazak betetzeko izendapen proposamena (lehiakideen zerrenda plaza betetzeko ordenari jarraiki egingo da).



2.- Oinarri hauetako 1.b) atalean aipatutako dokumentuak bi hilabetean izango dituzte gordeta Deialdi eta Lehiaketan Atalean, batzordeak proposamena egiten duen egunetik hasita. Baina proposamen horren kontrako errekurtsorik aurkezten bada dokumentuak gordeta izan beharko dira ebazpena irmoa izan arte.

Urtebete igaroz gero interesatuek dokumentuak hartzera joateke, unibertsitateak txikitu egin ahal izango ditu.

3.- Lehiakideek balorazio arrazoituaren ziurtagiria eskatu ahal izango diote Idazkaritza Nagusiarri (behar bezala kuantifikatua), hau da, lehiakide bakoitzaren merezimenduen inguruan batzordeko kide bakoitzak emandako txostena edo, horrela egin bazen, batzordearen txosten bakarra.

4.- Batzordeak proposatutako izendapenak errektoreak egingo ditu, egiaztatu ondoren lehiakideek betetzen dituztela 774/2002 Errege Dekretuko 5. artikuluan aipatutako baldintzak (Deialdi eta Lehiaketan Atalean aurkeztutako dokumentuen bitartez). Hogei egun izango ditu horretarako, batzordearen jarduna bukatuko denetik hasita. Hori dela-eta, batzordeko idazkariak batzordearen jarduna bukatzen den egunean bertan emango du argitara izendapen proposamena proba egin zen tokian, eta proposamen horretan gogoraraziko da atal honetan aipatutako dokumentuak aurkeztu behar direla.

Aurretik esandakoez gain, lehiakide proposatuak dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu, aipatutako epearen barruan:

- a) Medikuaren ziurtagiri ofiziala, unibertsitateko irakaslearen lanari dagozkion eginkizunak betetzea eragozten duen gaixotasunik eta eragozpen fisiko edo psikikorik ez duela adierazten duena.
- b) Zinpeko aitortpena adieraziz ez dela aldentuta egon diziplina espedientearen bidez estatuko administrazio orokorreko zerbitzutik edo autonomi, erakunde eta herrietako administrazioetatik, eta eginkizun publikoak betetzeko gaitua dagoela. Espainiar nazionalitatea ez dutenek ez dute izan beharko kasuan kasuko estatuko funtzio publikoan jardutea eragozten dien diziplina zehapenik edo kondena penalik.

5.- Karrerako funtzionario publikoek ez dituzte aurkeztu eta egiaztatu beharko aurreko ataleko bigarren paragrafoan aipatutako dokumentu eta betekizunak. Horien ordezkari lanean ari diren administrazioaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, funtzionario direla egiaztatu eta zerbitzu orrian azaltzen diren gorabehera guztiak adieraziko dituen.

6.- Plaza betetzeko proposatuko den lehiakideak ez baditu aurkeztu eskatutako dokumentuak, galdu egingo ditu bere eskubideak eta ez dute izendatuko karrerako funtzionario, baldin eta ez baditu arrazoi oso bereziak akreditatzen. Unibertsitateko errektoreak zerrendako hurrengo lehiakidea izendatuko du, 774/2002 Errege Dekretuko 5. artikuluan aipatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren. Hogei eguneko epea izango du horretarako, gertaera jakinaraziko denetik hasita.

7.- Izendapenean honako hauek zehaztu beharko dira: plazaren izena, kidegoa, jakintza arloa, saila, ikastegia, arduraldia, hizkuntz eskakizuna eta lanpostuen zerrendako kodea.

8.- Izendapena Estatuko Buletin Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta Unibertsitateko Irakaskuntza Koordinatzeko Kontseiluko Idazkaritza Nagusia jakinaren gainean jarriko.



PLAZA JABETZAN HARTZEA

- 1.- Izendapena Estatuko Buletin Ofizialean argitaratu eta hogeit eguneko buruan, lehiakidea plazaren jabe egin beharko da. Une horretatik aurrera izango da unibertsitateko irakasle funtzionarioa kasuan kasuko kidegoan.
- 2.- Lehiakideak beste jardueraren bat badauka arlo publiko edo pribatuan, bateragarritasunerako baimena eskatu beharko du plazaren jabe egin aurretik, horretarako egongo den epeko lehenengo hamar egunetan. Eskariari buruzko erabakia eman bitartean luzatu egingo da plazaren jabe egiteko epea.
- 3.- Plaza betetzeko proposatuko den lehiakidea ez bada egiten plazaren jabe aipatutako epean, eta horretarako arrazoi oso berezirik ez badu edo plazaren jabe egiteko epea luzatu ez bada, EHUKo errektoreak zerrendako hurrengo lehiakidea izendatuko du, aurreko paragrafoan zehaztutako dokumentuak aurkeztu eta gero.

V. ERREKLAMAZIOAK

ERREKLAMAZIO BATZORDEA

- 1.- Lehiakideek erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote errektoreari, batzordearen proposamenaren aurka, proba egin zen lekuan proposamena argitara eman eta hamar egun balioduneko epearen barruan. Erreklamazioa tramitatzea onartzen bada, izendapenak eten egingo dira behin betiko erabakia eman arte.
- 2.- Erreklamazioa Erreklamazioen Batzordeak aztertuko du. Hots, lehiaketako espedientea berrikusiko du, lehiakideen berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatu zirela egiaztatzeko; beharrezkotzat hartuko dituen ekintzak eramango ditu aurrera; eta erreklamazioa onartzen den ala ez erabakiko du, erreklamazio hori hartu eta hiru hilabeteko epearen barruan. Epe hori igarotzen bada beren-beregiko erabakirik emateke, erreklamazioa onartu ez delako izango da, eta administrazioarekiko auzien bidera jo beharko da. Horrela eginez gero, eten egingo da izendapena.
- 3.- Erreklamazio Batzordeak erreklamazioa onartzea ebatzen badu, errektoreak erabaki bat emango du argitara eta jarduera akatsa gertatu zen unera eramango da berriz. Unibertsitatean sartzeko lehiaketetako batzordeak, beharrezkoa izanez gero, beste izendapen proposamen bat egingo du.
- 4.- Erreklamazio Batzordean zazpi kide izango dira, guztiak unibertsitateko katedradunak, jakintza arlo desberdinetakoak. Unibertsitatean sartzeko lehiaketetako edo gaitasuna lortzeko batzordeetako kide izateko baldintzak bete beharko dituzte, eta Gobernu Kontseiluak aukeratuko ditu lau urterako. Batzorde honetan ezin izango dira egon jakintza arlo bereko bi kide.
- 5.- Batzordetako kideek ezin ezingo diote esan ezetz izendapenari. Kideren batek izendapenari uko egiteko arrazoi justifikaturen bat aurkez gero, errektoreari jakinaraziko zaio horri buruzko erabakia har dezan. Uko egiteko eskaria onartuz gero, Gobernu Kontseiluak beste kide bat aukeratu beharko du bi hilabeteko epean, errektoreak erabakia eman duen egunetik kontatzen hasita.
- 6.- Batzordeburua unibertsitateko katedradunen kidegoan antzintasun handiena daukan kidea izango da, eta idazkaria, antzintasun txikienekoa.



7.- Erreklamazio Batzordearen bileretarako deia batzordeburuak, edo hark eskuordetutako kideak, egingo du; bestela, errektoreak berak egin ahal izango du.

8.- Erreklamazioen Batzordeak hartutako erabakiak lotesleak izango dira errektorearentzat eta, errektorearen erabakiek amaiera ematen diotenez administrazio bideari, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan egin behar da zuzenean aurka, uztailaren 13ko 29/1998 legeak dioenari jarraituz.

OSASUN ERAKUNDEETAKO OINARRIZKO LANPOSTU ASISTENTZIALAK, UNIBERTSITATEKO IRAKASLEEN KIDEGOETAKO LANPOSTUEKIN LOTURA DUTENAK

1.- Lehiaketara deitutako lanpostua osasun erakundeetako oinarrizko lanpostu asistentziala bada, unibertsitateko irakasleen kidegoetako lanpostuekin lotura duena, eta lanpostua espezialista mailakoa bada, lehiaketan parte hartu ahal izateko, titulazio ofiziala izan beharko da plazari dagokion espezialitatean eta, gainera, gaindituta izan beharko dira gaitasun probak. Hori guztia bat dator uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretuko 5.2. artikuluan zehaztutakoarekin.

2.- Plaza horietarako lehiaketetako batzordeetan (uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretuko 5.2. artikuluan zehaztutako plazak), kideetako bi doktoreak izan behar dira (unibertsitate eskoletako irakasleen plazak direnean izan ezik) eta lanposturako eskatutako espezialista titulua izan behar dute. Bi kide horiek osasun erakundeak aukeratuko ditu, zozketa publiko bidez, urtean-urtean Unibertsitateko Irakaskuntza Koordinatzeko Kontseilura bidalitako zerrendako kideen artean.

ESZEDENTZIAN DAUDEN IRAKASLEAK LANERA BUELTATZEA

1.- Uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretuko lehenengo xedapen iragankorraren arabera, borondatezko eszedentzian gutxienez bi urte baina gehienez bost eman dituzten unibertsitateko irakasle funtzionarioak euren unibertsitatean lan egitera itzuli ahal izango dira, automatikoki eta behin betiko, baldin eta euren kidegoko eta jakintza arloko plazaren bat hutsik badago.

Irakasle funtzionarioak eskaria egin beharko dio kasuan kasuko unibertsitateari erabakia har dezan, goian aipatutako denbora tarteak betetzen direla egiaztatu ondoren.

Eskaria egiteko epea hamabost egunekoa izango da gehienera, aipatutako Errege Dekretuko 3.3. artikuluan aipatutako gaitasun probetarako deia egiten duen erabakia Estatuko Buletin Ofizialean argitaratzen denetik aurrera hasita.

Horrelakoetan ez da lehiaketarik egingo plaza hutsa betetzeko, betiere, denbora tarteak beteta izanda, lanera bueltatzeko eskaria unibertsitateko irakasleen kidegoetako funtzionario batek baino gehiagok egin ez badu plaza bererako. Horrelakorik gertatuz gero, lehiaketan ukitutako funtzionarioek baino ez dute parte hartu ahal izango.

2.- Aurreko atalean zehaztutako denbora baldintzak betetzen ez badira, eta eszedentzian dagoen unibertsitateko irakasleen kidegoetako funtzioak lanera bueltatzeko eskaria egin badu, unibertsitatean sartzeko lehiaketara aurkeztu beharko da.

LANPOSTU ASISTENTZIALAK

Osasun erakundeetako oinarrizko lanpostu asistentzialen kasuan, unibertsitateko irakasleen kidegoetako lanpostuekin lotura dutenean, ez da lehiaketarako deirik egingo ez badago hitzarmenik sinatuta EHUren eta osasun erakundearen artean.



EPEAK

Uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretuko epeak kontatzeko, ez da kontuan izango abuztua, eta hil horretan ez dira beteko errege dekretu horretako artikuluetan zehaztutako jarduerak.

INTERPRETAZIOA

1.- Prozedura hau eta bere hutsuneak ulertzerakoan, honakoak izan behar dira kontuan: 6/2001 Lege Organikoa, 774/2002 Errege Dekretua, Unibertsitateko Estatutuak eta ezar daitezkeen Estatutuko zein Autonomia Erkidegoko gainontzeko xedapen guztiak.

2.- Unibertsitatean sartzeko lehiaketetako batzordeek ebatziko dituzte lehiaketak egitean deialdiaren aplikazioaren inguruan sor daitezkeen zalantzak, bai eta deialdian aurreikusi ez diren egoeretan egin beharrekoa ere. Dena dela, batzordeen jarduna bat etorri beharko da azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearekin (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua).

6.8.- IRAKASLE OSOEN PLAZA BERRIAK .

Otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoak, 19. artikuluan jasota dauka irakasle osoaren irudia, eta irakasle osoen lanpostuetara iritsi nahi duten hautagaiek eskakizun hauek bete eta egiaztatu behar dituztela dio:

- a).- Doktore titulua beharrezkoa duten unibertsitateko irakasle kidegoetakoren batekoa izatea, edo lege honen arabera irakasle agregatua izatea, eta gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatzea unibertsitateko irakaskuntza eta doktorego ondoko ikerketa jardueretan.
- b).- Beharrezkoa izango da, baita ere, Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziak, ANECA/Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziak edo Euskal Autonomia Erkidegoko araudiak onartutako antzeko erakunde batek irakaslan eta ikerlan horren aldeko ebaluazioa izatea aldeztu aurretik.

Irakasle irudi hau arauz garatu gabe dago.

7.- IRAKASLE KONTRATATUEN PLAZA HUTSAK ALDI BATERAKO BETETZEA.

Ikasturteko edozein garaitan eskatu ahal izango da aldi baterako betetzea sortzen diren edo ustez sortuko diren irakasle kontratatuen plaza hutsak. Eskaera horiek egiteko 8. eranskina beteko da.

Esandakoa gorabehera, irakasle plaza hutsak betetzeko eskaria egin aurretik, sailek beren irakasleen artean arduraldi partzialeko kontratua izanik arduraldi osokoa lortu nahi duenik dagoen egiaztatuko du, betiere, kontratua arduraldi osokora aldatzeko aukerarik badago. Horrelakorik egonez gero, lehentasuna izango du arduraldia gehitzeak, baldin eta arduraldi partzialeko kontratuaren ezaugarriak (hizkuntza eskakizuna, jakintza arloa eta ikastegia) egokiak badira kontratua arduraldi osora aldatu eta premiak asetzeko.

Plaza hutsa arduraldi osoko irakasle elkartu batena bada, edo uztailaren 26ko 774/2002 Errege Dekretuko VI. eranskinean agertzen ez den arlo bateko irakasle lankidearena (desagertu egingo dira bi irudi horiek), 11. eranskina bete beharko da lanpostuen zerrenda aldatzeko.



Gainera bereziki aipatu behar dugu eskolak ezin direla utzi bertan behera, unibertsitate administrazioa zerbitzu publikoa delako, batetik, eta legeak horretara behartzen gaituelako, bestetik (EHUren Estatutuetakoko 192. eta 193.a) eta f) artikulua). Horrela, bada, sailean plazaren bat hutsik geratzen bada, sailak eskolak eman gabe ez uzteko beharrezko diren neurriak hartuko beharko ditu lehenbailehen (otsailaren 25eko 3/2004 Legea, Euskal Unibertsitate Sistemarena, 28.2. artikulua; Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuetakoko xedapen iragankorretatik 10.ena; 1497/1987 Errege Dekretuko 7. artikulua).

Eskariak egingo dituzten sailek memoria ere aurkeztu beharko dute 8. eranskinarekin batera, sailak dauzkan bitartekoez baliatuta premia berriei erantzutea ezinezkoa dela behar bezala justifikatzen duena.

Plaza hutsak Medikuntza eta Odontologia Fakultateko irakasgune baterako badira, hau da, irakasgai klinikoak emateko, sailak adierazi beharko du zein ospitaletan eta zein espezialitatetan eskaini behar diren zerbitzuak.

Plaza horiek betetzea onesteko irizpidea hauxe izango da: sailak/arloak kontratatuta duen irakasle kopuruaren eta bere gain hartuta dauzkan irakats betebeharren arteko erlazioa.

Eskariak irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordetzara bidaliko dira. Atal horrek egiaztatuko ditu plazaren ezaugarriak, bai eta dagokion hizkuntza eskakizuna ere gaztelaniazko plaza hutsa bada, euskararen arloan eskumena daukan errektoreordetzaren txostenaz bat. Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak aztertuko ditu eskari guztiak eta txostena egingo du, aipatutako lege xedapenak, sailaren irakats betebeharrak (euskaraz eta gaztelaniaz) eta kontratatuta duen irakaskuntza (euskaraz eta gaztelaniaz) hartuta kontuan.

Orokorrean, hutsune bat sortzen denean, eta UIBk aldeko txostena egin ondoren, sailak honako era hauen artean aukeratu behar du betetzea:

1.- Hutsunea sortzen den ikasturtean zehar ezaugarri berdinak (saila, jakintza arloa, arduraldia eta hizkuntza eskakizuna) dituen plaza bat betetzeko lehiaketa egin denean, deialdi horri dagokion lan poltsa erabiliko da. Ezaugarri berdinak dituzten plaza desberdinak dardenean sailak aukeratu beharko du zein lan poltsa erabili nahi duen. Aukeratutako lan poltsari dagokion deialdiaren ordenari jarraiki egingo dira lanpostua betetzeko deiak, proposatutako lehiakidea barne.

2.- Hutsunea sortzen den ikasturtean lehiaketa publikorik egon ez denean edo egon eta erabaki ondoren lan poltsarik sortu ez denean bakarrik eskatu ahal izango da, modu berezian, aurreko ikasturteko lan poltsa bat erabiltzea, ezaugarri berdinak dituen (kategoria, saila, jakintza arloa eta hizkuntza eskakizuna).

3.- Sailak behar bezala justifikatzen badu, eskatu ahal izango da lehiaketa publikoa egiteko deialdia (8. eranskina bete beharko da).

Edonola ere, lehiaketa publiko bateko lan poltsa erabili ahal izateko, deialdi bietako baldintzak berdinak izan behar dira. Beraz, lege aldaketaren batek beste baldintza batzuk ezartzea eragingo balu, ezingo litzateke erabili aurreko poltsa.

Ordezkoak kontratatutako lehiaketa publikoetako poltsak ezingo dira erabili plantillako plaza hutsak betetzeko.



8. PLAZAK ALDI BATERAKO BETETZEA: ORDEZKOAK

Ikasturteko edozein garaitan unibertsitateko edo unibertsitate eskolako katedradun, unibertsitateko edo unibertsitate eskolako irakasle titular edo irakasle kontratatu baten ordezkapena eskatu ahalko da, aldi baterako baja hartzen badu baina plaza hutsik geratu barik (gaixotasun bajak, amatasun/aitatasun bajak, sindikatuan lan egiteko liberazioa, euskara ikasteko liberazioa, liberazio eskubidea dakarren kargu akademikoa hartzea, eta abar), baldin eta sailak dauzkan giza bitartekoez baliatuta ezin bazaio egin aurre irakaslan horri.

Plaza bat aldi baterako betetzeko eskaera (ordezkoa egiteko) 9. eranskinen egingo da. Eranskinarekin batera sailaren memoria aurkeztuko da, sailak dauzkan bitartekoez baliatuta ordezkoez egitea ezinezkoa dela behar bezala justifikatzen duena, kontuan izanda aipatutako arauak.

Saileko zuzendariak, dekanoren oniritziarekin, zuzenean eskatu ahal izango du ordezkoa, egoera premiazkoa bada. Eskaera hori, dena dela, Saileko Kontseiluak eta Ikastegiko Batzarrak berretsi beharko dute hurrengo bileran.

Ordezkoak Medikuntza eta Odontologia Fakultateko irakasgune baterako badira, hau da, irakasgai klinikoak emateko, sailak adierazi beharko du zein ospitaletan eta zein espezialitatetan eskaini behar diren zerbitzuak.

Irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordeak aldeko edo kontrako iritzia emango du, kontuan hartuta sailak/arloak kontratatuta duen irakasle kopuruaren eta bere gain hartuta dauzkan irakats betebeharren arteko erlazioa.

Hau da, irakasleak aldi baterako baja hartzen badu baina plaza hutsik geratu barik (gaixotasun bajak, sindikatuan lan egiteko liberazioa, euskara ikasteko liberazioa, liberazio eskubidea dakarren kargu akademikoa hartzea eta abar), ordezkoa lortzeko eskariari ez zaio zuzenean baiezkotzea emango; horrelakoetan kontuan hartuko da, aipatutako legediari jarraituz, saila zein egoeratan dagoen -zein den kontratatuta daukan ahalmena eta zenbatekoa diren irakats betebeharrak-.

Sailak ez badu baimenik ematen ordezkoa eskatzeko, eman gabe geratzen den irakaslan sailak berak banatu beharko du gainontzeko irakasleen artean. Dena dela, nahiz eta ordezkorako baimena eman, saileko irakasleen artean banatu beharko da irakaslan ordezkoa kontratatu arte.

Kargu akademikoen ordezkoen kasuan gehieneko arduraldia zein izango den jakiteko, kasuan kasuko kargua hartuko duenaren benetako arduraldiari kendu beharko zaio Estatutueta jasota dagoen irakats betebeharren salbuespen maila -EHUko langileen lan baldintzak arautzeko indarrean dagoen hitzarmenari jarraiki-. Unibertsitate eskolako zuzendariaren kargua beteko duen unibertsitate eskolako irakasle titularra (ez doktorea) ordezkatzeko, bi era egongo dira: asteen 6 orduko arduraldia izango duen ordezkoa (eta sailak hartu beharko du bere gain gainerako irakaslan, onartuta dagoen asteen 8 orduko salbuespeneraino); edota asteen 4 orduko arduraldia izango duten ordezko bi.

Ordezkoa kontratatzeko beharra gertatzen den ikasturtean egin eta ebatzi bada ezaugarri berdinak (saila, jakintza arloa, kategoria eta hizkuntza eskakizuna) dituen plazaren bat betetzeko lehiaketa (bitarteko irakaslea kontratatzeko), ez da egingo beste deialdirik. Horrela gertatuko balitz, hasierako deialdiari dagokion hurrenkeran hurrengo den lehiakidea izango litzateke deitua lanpostua betetzeko, beste lehiaketa bat egiteke. Arduraldi partzialeko kontratua egiteko xedez deitutako lehiaketaren ondorioz osatutako zerrenda ezin izango da erabili arduraldi osoko plazetako premiak betetzeko. Aukeratutako lan poltsari dagokion deialdiaren ordenari jarraiki egingo dira lanpostua betetzeko



deiak, proposatutako lehiakidea barne. Ordezkoa modu horretara eskatuko denean 9. eranskina aurkeztu beharko da, baina epaimahaiko kideen proposamena egiteke.

Ordezkatze beharra sortzen den ikasturtean lehiaketarik egon ez denean, edo egon eta erabaki ondoren lan poltsarik sortu ez denean, aurreko ikasturteko lan poltsa bat erabiltzea eskatu ahal izango da, ezaugarriak bat badatoz. Hau da: horrelakoetan, jakintza arloa, saila, hizkuntza eskakizuna eta irakaslearen kategoria bera izateaz gain, eskatzen diren baldintzak ere berberak izan behar dira. Arduraldi partzialeko plaza betetzeko xedez deitutako lehiaketaren ondorioz osatutako zerrenda ezin izango da erabili arduraldi osoko plazetako premiak betetzeko.

Lehiaketa publikoaren deialdia egitea bakarrik eskatu ahal izango da dagokion jakintza arloan deialdi publikorik egin ez denean, edota sailak behar bezala justifikatzen badu egindako deialdietan azaldu diren plazen ezaugarriak ez direla egokitzen ordezkatu beharreko plazari dagozkienera (9. eranskina bete beharko da).

Edonola ere, lehiaketa publiko bateko lan poltsa erabili ahal izateko, deialdi bietako baldintzak berdinak izan behar dira. Beraz, lege aldaketaren batek beste baldintza batzuk ezartzea eragingo balu, zingo litzateke erabili aurreko poltsa.

9. LAN KONTRATUAK BETETZEKO LEHIAKETA PUBLIKOAK ETA LEHIAKETETAKO EPAIMAHAIK: XEDAPEN OROKORRAK.

9.1.- DEIALDIAK ARGITARATZEA.

Irakasle kontratatuak kontratatze xedez deitutako lehiaketa publikoak ez dira prentsan iragarriko, plaza kopurua eta izaera berezia kontuan hartuta (adibidez ikasturtearen hasierako kontratazioak) kontraktorik erabaki ezean.

Lehiaketa publikoetarako deialdiak unibertsitatearen web orrian eta unibertsitatearen iragarki ohol birtualetan argitaratuko dira, bai eta Errektoregoko eta campusetako iragarki oholetan ere.

9.2.- GERENTZIAREN TXOSTENA.

Urriaren 21eko 247/2003 Dekretuko 11. artikulua dioen moduan, deialdia tramitatu baino lehenago unibertsitateko gerenteak aldeko txostena egin beharko du, aurrekontuan horretarako dirua daukan plaza hutsari buruzkoa. Txosten hori irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordeak eskatuko du, gainerako tramiteak egin ondoren.

9.3.- LEHIAKETETAN PARTE HARTZEKO BETEBEHARRAK.

TITULAZIOA

- Laguntzaileak: goi mailako titulua eta LOUko 38. artikuluan aipatutako doktorego ikastaroak gaindituta izatea.
- Irakasle atxikiak: doktore titulua.
- Irakasle lankideak, irakasle elkartuak eta bitarteko irakasle kontratatuak. Eskatutako titulazioa, orokorrean: lizentziatua, arkitektoa edo ingeniaria. Ondoren aipatzen diren jakintza arloetan, aldiz, unibertsitateko diplomatuak, arkitekto teknikoak edo ingeniari teknikoak kontratatu ahal izango dira: 110 Arkitektura Eraikuntzak; 187 Gorputz Adierazpidearen Didaktika; 189 Musika Adierazpidearen Didaktika; 193 Plastika



Adierazpidearen Didaktika; 255 Erizaintza; 300 Arkitekturako Adierazpen Grafikoa; 0305 Ingeniaritzako Adierazpen Grafikoa; 413 Fisioterapia; 505 Kartografia Geodesia eta Fotogrametria Ingeniaritza; 535 Ingeniaritza Elektrikoa; 647 Optika; 813 Gizarte Langintza eta Gizarte Zerbitzuak.

EUSKARA

Plaza elebidun moduan agertzen bada lanpostuen zerrendan, derrigorrezkoa izango da euskararen jakite maila egiaztatzea.

Euskaraz irakasteko gaitasun agiria Euskarako errektoreordearen 2002ko ekainaren 5eko erabakiak zehaztutako moduan eskuratuko da (2002ko uztailaren 11ko EHAA).

BESTE BETEBEHAR BATZUK

- Irakasle lankideak eta irakasle atxikiak kontratatzeko beharrezkoa izango da Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziak, ANECA/Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziak edo Euskal Autonomia Erkidegoko araudiak onartutako antzeko erakunde batek irakaslan horren, eta, egoki izanez gero, ikerketaren aldeko txostena emana izatea alde zurretik, edo ebaluazio positiboa egina.
- Irakasle elkartuak kontratatzeko beharrezkoa izango da egiaztatzea unibertsitateko irakaskuntzatik kanpora egindako lanbide jarduera agirien bidez; hain zuzen, aurreko lau urteetan (unibertsitateak irakasle elkartu gisa kontratatzeko deitutako deialdirako eskariak aurkezteko zehaztu den azken egunetik kontatzen hasita) gutxienez bi urtez lanbide jardueretan aritu izana egiaztatu behar da, unibertsitatean irakasteko gaitzen duen titulu akademikoari dagozkion lanbideetako batean, alegia.
- Irakasle elkartuen kontratuak Medikuntza eta Odontologia Fakultateko irakasgune baterako badira, hau da, irakasgai klinikoak emateko, egiaztatu beharko da zein ospitalean eta zein espezialitatetan eskaintzen diren zerbitzuak

9.4.- EPAIMAHAIK.

Urriaren 21eko 247/2003 Dekretuak, aldi baterako kontratatutako unibertsitate irakasleei buruzkoak arautzen du epaimahaiak nola osatuko diren, EHUren Estatutuetan xedatutakoa kontuan hartuta.

8., 9., 10. eta 11. eranskinak beteko badira eskaria egiteko, epaimahaiko kideen proposamena dokumentu berean egingo da, baldin eta sailak aurretik egindako lehiaketa publiko baten lan poltsa erabiltzea proposatzen ez badu. Hala bada, ez da egin behar plaza betetzeko lehiaketa publikoa. 11. eranskinaren kasuan -lanpostuen zerrendak aldatzeko proposamenei dagokiena- epaimahaiko kideen izenak jarriko dira kontratua betetzeko lehiaketa publikoa egin behar bada.

Ondoko hauek osatuko dituzte epaimahaiak: kasuan kasuko plazari dagokion jakintza arloko hiru irakasle doktorek edo, halakorik egon ezean, jakintza arlo kidekoek. Idazkaria Unibertsitateko Irakasleen Batzordeko kide bat izango da, hitza izango duena, baina ez botorik.

Epaimahai horietako kideak saileko kontseiluak izendatuko ditu, eta mahaiburu edo mahaikide izango diren adierazi.



Epaimahaiaren proposamena tramitatzeko eta epaimahaia izendatuta geratzeko, osakide guztiak izendatu beharko dira.

Epaimahaia onartu eta izendatu ondoren ezin izango dira aldatu, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Abstentziorako edo errekusaziorako arrazoirik badago, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. eta 29. artikuluetan zehaztutakoari jarraituko zaio.

Kideei batzordean aritzea eragozten dien arrazoiren bat gertatzen denean (prozeduran parte ez hartzeko egoeran daudelako, errefusatuak izan direlako, uko egin dutelako edo besteren bat), ordezkokideak arituko dira euren ordezkari.

Ordezko kideak ere ezin badu jardun batzordean, prozeduran parte ez hartzeko edo errefusatuak izateko egoeraren batean dagoelako, kategoria eta antzinate handieneko ordezkaria arituko da haren ordezkari. Egoera horiek eraginda ez bada posible batzordea eratzea, beste batzorde bat izendatuko da.

Epaimahaiaren bileretarako deiak idatziz egingo dira, eta behar bezala jakinaraziko.

9.5.- BAREMAZIORAKO IRIZPIDE BEREZIAK.

EHUko behin-behineko Gobernu Kontseiluak, 2004ko otsailaren 3an egindako bileran, Gobernu Batzarrak 1994ko ekainaren 30ean hartutako erabakia aldatu zuen (irakasle titular bitartekoak kontratatzeke lehiaketa publikoetako irizpide orokorrak eta irakasle laguntzaileak eta elkartuak kontratatzeke irizpideak onartzen zituen), bai eta 1998ko maiatzaren 18ko akordioa ere (baremazioko irizpide espezifikoak zehazten zituen).

EHUko Gobernu Kontseiluak 2004ko uztailaren 22an hartutako erabakiaren bidez, bitarteko irakasle kontratatuei ezarri beharreko baremoak irakasle lankideei ezarri beharreko baremoak izango zirela zehaztu zen.

Beraz, irakasle kategoria bakoitzari ezarri beharreko baremazio espezifikoak honakoak da:

KATEGORIA	IRAKAS. ES	IKERK. ESP	ESPEDIENTI AKADEMIKO	EUSKAR	LANEKO E
Laguntzailea*	0 puntu	30 puntu	30 puntu	9 puntu	20 puntu
Irakasle lankidea	35 puntu	15 puntu	15 puntu	9 puntu	20 puntu
Bitarteko irakasle kontratatua*4	25 puntu	15 puntu	15 puntu	9 puntu	20 puntu
Irakasle elkartua	25 puntu	10 puntu	10 puntu	9 puntu	40 puntu

KATEGOR	MERITU AK	IKERKET MERITUA	IRAKASK PROIEKTU	IKERKETAK PROIEKTUA	EUSKARA
Irakasle atxiki	25 puntu	25 puntu	15 puntu	15 puntu	8 puntu



Gehienez lor daitekeen puntuazioa honakoa izango da: laguntzaileek, irakasle lankideek, bitarteko irakasle kontratatuek eta irakasle elkartuek, 99 puntu kontratua ez bada elebiduna, eta 90 puntu elebiduna bada; irakasle atxikiek 88 puntu, kontratua elebiduna ez bada, eta 80 puntu elebiduna bada.

LOUren 63. artikuluan zehaztutako lehiaketetan parte hartzeko gaitasun agiria duten lehiakideen kasuan, %20 gehituko da lortutako puntuazioa, baina lehiakide horiek ezin izango dute, inolaz ere, gainditu lor daitekeen gehienezko puntuazioa, euskara jakiteagatik lor daitekeen puntuazioa albo batera utzita; hau da: guztira, 90 edo 80 puntu lortu ahal izango dituzte, hurrenez hurren.

*1: gainontzeko 10 puntuak batzordearen irizpideen arabera banatuko dira arlo hauen artean: ikerketako esperientzia, espediente akademikoa edo laneko esperientzia.

*2: gainontzeko 5 puntuak batzordearen irizpideen arabera banatuko dira arlo hauen artean: irakaskuntzako esperientzia, ikerketako esperientzia, espediente akademikoa edo laneko esperientzia, betiere, kontuan izanda irakaskuntzako esperientzia dela garrantzitsuen.

*3: gainontzeko 5 puntuak batzordearen irizpideen arabera banatuko dira arlo hauen artean: irakaskuntzako esperientzia, ikerketako esperientzia, espediente akademikoa edo laneko esperientzia.

*4: gainontzeko 15 puntuak batzordearen irizpideen arabera banatuko dira arlo hauen artean: irakaskuntzako esperientzia, ikerketako esperientzia, espediente akademikoa edo laneko esperientzia. Ezin izango da, inolaz ere, 10 puntu baino gehiago eman arlo horietako baterako.

OHARRAK

- Ezin izango da baloratu gabe utzi baremazioko irizpideetan zehaztutako atal bat bera ere.
- Meritu bat atal baten baino gehiagoren arabera azter daitekeenean, lehiakideak puntuaziorik gehien lor dezakeen atalean hartuko da kontuan.
- Epaimahaiak gutxienezko nota ezar dezake lehiakidea kontraturako proposatu ahal izateko edo ordezkotzeko.
- Ponderazioak:
 1. Lehiakideren batek gainditu egiten badu atal baterako zehaztutako gehienezko puntuazioa, lehiakide horri gehienezko puntuazio emango zaio eta, gainontzekoei, horren arabera puntuazio ponderatua.
 2. Atal bakoitzeko puntuazioa ponderatu egin ahal izango da, merituak plazaren ezaugarrietara egokitu ahal izateko.

9.5.1. IRAKASKUNTZAKO ESPERIENZIA

Unibertsitateko esperientzia	Espezifikoa	≤ 6 puntu/urte
	kideko arloan	≤ 4 puntu/urte
	Beste batzuk	≤ 2 puntu/urte
Irakasgaiko helburuak, programak eta bibliografia		≤ 3 puntu
Irakaskuntza ertainetako eta LHko esperientzia		≤ 2 puntu/urte
Irakaskuntzaren arloko beste meritu batzuk		≤ 2 puntu
Irakaskuntzaren arloko argitalpenak		≤ 3 puntu



- Epaimahaiaren irizpideei jarraituz, eta kontuan izanda irakaskuntza berrituz doala, gutxienez azken 5 urteetako eta gehienez azken 10 urteetako esperientzia hartuko da kontuan.
- Arduraldia ponderatu egingo da.
- Kontratu bidez behar bezala egiaztatutako denboraldiak baino ez dira izango kontuan.
- Irakasleen unibertsitate eskoletako plazak direnean, kontuan hartuko da haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako eskoletan izandako esperientzia.

9.5.2. IKERKETAKO ESPERIENTZIA

Ikerketako proiektuak	Kanpoko erreferentziarekin	
	Ikertzaile nagusia	≤ 2,5 puntu/urte
	Laguntzailea	≤ 1,5 puntu/urte
	Kanpoko erreferentzia gabe	
	Ikertzaile nagusia	≤ 0,75 puntu/urte
	Laguntzailea	≤ 0,50 puntu/urte
Arte Ederretako plazetan, epaimahaiak erabaki dezake ikerlantzat hartzea lehiakidearen obra plast eta argazkidun dossiera ikusita, ≤ 5 punturekin baloratu ahal izango dute.		
Argitalpenak, garrantziaren, eraginaren eta plazarekin daukan loturaren arabera	Liburua	≤ 5 puntu
	Liburuko atala	≤ 3 puntu
	Artikulua	≤ 3 puntu
	Arte ederretako katalogoa (gehienez 5)	≤ 1 puntu
Patenteak		≤ 4 puntu
Biltzarrak	Hitzaldia	≤ 2 puntu
	Komunikazioa	≤ 1 puntu
Bekak	Ikerlarien prestakuntzarakoa, Hezkuntza eta Kultura Ministerioarena, EJRena, EHUrena, Europako Batasunarena edo antzekoak	≤ 1 puntu/urte
Tesiak zuzentzea		≤ 3 puntu
Tesinak eta karrera amaierako proiektuak zuzentzea		≤ 1 puntu
Ikerketa zentroetako egonaldiak (bi hilabetetik gora)		≤ 2 puntu/urte
Ikerketako beste meritu batzuk		≤ 2 puntu

9.5.3. ESPEDIENTE AKADEMIKOA

Batez besteko nota	x1 edo x2 puntu
Irakasgai espezifiko edo plazaren kideko irakasgaiengatik puntuazio gehigarriak	≤ 2 puntu
Lizentziaturako tesina	≤ 2 puntu
Sari berezia: - lizentziaturakoa	≤ 2 puntu
- doktoregokoa	≤ 2 puntu
Doktoregoko programa (32 kreditu)	≤ 2 puntu
Ikasketa Aurreratuen Diploma	≤ 1 puntu
Doktore titulua	≤ 10 puntu
Masterrak eta graduondoko ikastaro bereziak, 6 hilabetetik gorakoak	≤ 2 puntu



Unibertsitateko beste titulu batzuk: -kidekoak - ez kidekoak	≤ 3 puntu ≤ 1 puntu
Hizkuntzak	≤ 3 puntu egiaztatutako hizkuntza bakoitzeko
Beste meritu batzuk	≤ 2 puntu guztira

- Batez besteko nota kalkulatzeko honakoak izango dira kontuan: nahikoa, puntu 1; oso ongi, 2; bikain, 3; ohorezko matrikula, 4. Plan berriak direnean, enborreko, nahitaezko eta hautazko irakasgaiak baino ez dira kontuan izango.

9.5.4. EUSKARAREN JAKITE MAILA

- **Atal hau plaza EZ ELEBIDUNETAN baino ezin izango da ezarri**
- **Euskararen jakite maila baloratzeko irizpideak irakasle ez elebidunak kontratatzeko.**
Gobernu Kontseiluak onartuak 2002ko maiatzaren 23an (02/07/11ko EHAA)

MAILA

<input type="checkbox"/>	“Unibertsitatean Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiria” (EHUK emana); Euskal Filologia	9
<input type="checkbox"/>	4. Hizkuntza Eskakizuna, administraziokoa	9
<input type="checkbox"/>	EIT; Euskara teknikoa + ikasketak euskaraz; Irakasleen Unibertsitate Eskoletako euskal adarra	9
<input type="checkbox"/>	EGA; D titulua; Hizkuntza Eskolako Agiria; Administrazioko 3. HE; Irakasleen 2. HE	9
<input type="checkbox"/>	HABEko 12. maila; euskaraz ikasi izana (gutxienez %50)	6,75
<input type="checkbox"/>	HABEko 11. maila; Euskara teknikoa	6,30
<input type="checkbox"/>	HABEko 10. maila	5,85
<input type="checkbox"/>	HABEko 9. maila	5,40
<input type="checkbox"/>	2. HE, administraziokoa; 1 HE, irakasleena	
<input type="checkbox"/>	HABEko 8. maila	4,05
<input type="checkbox"/>	HABEko 7. maila	3,60
<input type="checkbox"/>	1. Hizkuntza Eskakizuna, administraziokoa	3,15
<input type="checkbox"/>	HABEko 6. maila	2,70
<input type="checkbox"/>	HABEko 5. maila	2,25
<input type="checkbox"/>	HABEko 4. maila	1,80
<input type="checkbox"/>	HABEko 3. maila	1,35
<input type="checkbox"/>	HABEko 2. maila	0,90
<input type="checkbox"/>	HABEko 1. maila	0,45

- Aurreko irizpideen arabera lortutako puntuazioari 0,8ko zuzenketa faktorea ezarri ahal izango zaio, eta gainontzeko puntuazioa euskararekin lotutako merituak puntuatzeko erabili.
- Irakasle laguntzaile doktoeren kasuan, arlo honetan eman daitekeen gehieneko puntuazioa 8 da baremo orokorrari jarraituz (eranskina).

9.5.5. LANEKO ESPERIENTZIA

- Epaimahaiaren irizpideei jarraituz, eta kontuan izanda lan arloa berrituz doala, gutxienez azken 5 urteetako eta gehienaz azken 10 urteetako esperientzia hartuko da kontuan.



- Irakasleen unibertsitate eskoletako plazak direnean, lan arloko esperientziatza hartuko da haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako eskoletan izandako esperientzia.
- Arte Eder Fakultateko plazetarako honakoak baloratuko dira, besteak beste:

Arte ederreko erakusketak	banaka	≤ 1 puntu
	tal	$\leq 0,5$ puntu

10.- BATERAGARRITASUNAK

Gai honi buruzko erabakia 2003ko azaroaren 13an hartu zuen EHUko Gobernu Kontseiluak.

Erabaki hori kasu hauetan aplikatuko da:

- a).- Funtzionarioa lanpostua jabetzan hartzeraz doanean.
- b).- Administrazio kontratua edo lan kontratua sinatzeraz doanean.
- c).- Arduraldi partzialeko lanpostua betetzen ari den funtzionarioa arduraldi osoko lanpostua hartzeraz doanean.
- d).- Arduraldi partzialeko lanpostua betetzen duen kontratunak arduraldi osoko lanpostua hartzeraz doanean.

Baldin eta lanpostua hartuko duenak beste jardueraren bat egiten badu arlo publiko edo pribatuan, funtzionario izateko proposamena edo kontratua sinatzeko proposamena egin ondoren, Pertsonaleko Gerenteordetzarekin jarri beharko da harremanetan bateraezintasunei buruzko araudiaren berri eskatzeko, eta beste jarduera hori unibertsitateko lanpostuarekin bateragarria den ala ez egiaztatzeko.

Lanpostua beteko duenak ez badu beste jarduerarik unibertsitatetik kanpo, plaza jabetzan hartzeko edo kontratua sinatzeko tramiteekin aurrera egingo da eta interesatuak hori horrela dela adierazi beharko du plazaren jabe egin arretik edo kontratua sinatu aurretik, apirilaren 30eko 598/1985 Errege Dekretuko 13. artikuluan aipatutako 53/1984 Legearen ondorioetarako.

Lanpostua beteko duenak beste jardueraren bat badauka arlo publikoan, bateragarritasunerako baimena eskatu eta lortu beharko du plazaren jabe egin aurretik edo kontratua sinatu aurretik, eta tramiteak egiteko epea luzatu egingo da eskariari buruzko erabakia eman arte.

Betetzera doan lanpostua eta lehendik izandakoa bateraezinak badira, bietariko bati uko egin beharko dio, eta plazaren jabe egitean edo kontratua sinatzean, jasota geratu beharko da zein lanpostu aukeratu duen.

Lanpostua beteko duenak beste jardueraren bat badauka arlo pribatuan, bateragarritasunerako baimena eskatu eta lortu beharko du plazaren jabe egin aurretik edo kontratua sinatu aurretik, eta tramiteak egiteko epea luzatu egingo da eskariari buruzko erabakia eman arte.

Betetzera doan lanpostua bateraezina bada arlo pribatuan betetzen duenarekin, bietariko bati uko egin beharko dio, eta plazaren jabe egitean edo kontratua sinatzean, jasota geratu beharko da zein lanpostu aukeratu duen.

Aurreko ataletan zehaztutakoari berdintza jarraitu beharko zaio lanpostuen zerrenda aldatzearen ondorioz funtzionario edo kontratunaren arduraldia aldatu eta arduraldi partziala izatetik arduraldi osoa izatera igarotzen denean.



EHUko Gobernu Kontseiluak lanpostuen zerrenda aldatzeko erabakirik hartuz gero, erabakia eten egingo da eta ez da ezarriko, harik eta aipatutako tramiteak egin arte, hau da: bateragarritasunari buruzko adierazpena egin (bateraezintasunei buruzko 53/1984 Legearen ondorioetarako adierazpena) eta bateragarritasunerako baimena eman arte.

11.- IRAKASLE EMERITUAK ETA IRAKASLE BISITARIAK UNIBERTSITATEAN SARTZEA.

11.1.- ADINAGATIK ERRETIROA NAHITAEZ HARTU DUTEN IRAKASLE EMERITUAK

Honako hauek arautzen dute irakasle emerituen irudia: abenduaren 21eko Unibertsitateen 6/2001 Lege Organikoko 54.1. artikulua, urriaren 21eko 247/2003 Dekretuko 9. artikulua, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legeko 24. artikulua eta unibertsitatearen Estatutuak 45. artikulua.

Arau horiek diotenaren arabera, Gobernu Kontseiluak zehaztuko ditu irakasle emerituak kontratatzeko baldintzak eta sistema, ikusita Unibertsitateko Irakasleen Batzordearen proposamena. Irakasle emerituek izen handiko irakasle erretiratuak izan beharko dute, EHUUn zerbitzu nabarmenak eskaini dituztenak gutxienez hamar urtean. Apirilaren 30eko unibertsitateko irakasleen erregimenari buruzko 898/1985 Errege Dekretuko 22. artikuluko 5. puntuak esaten duenaren arabera, *“kontratua bukatu arren irakasle emerituaren izendapena betirako da, ohorezko moduan”*.

Gutxienez sail baten ekimena izan diren proposamenek -saileko idazkariak ziurtatu egin beharko du kontseiluak erabaki hori hartu duela-, kasuan kasuko ikastegi batzarraren aldeko txostena izan beharko dute, eta irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordetzara bidaliko dira emeritu izendatzea eskatzen den irakasleak garatuko dituen ekintzen memoria eta curriculum vitae-arekin batera. UIBk eskaerak aztertuko ditu, kontuan hartuta eskatzaile bakoitzaren merezimenduak. Errektoreordetzak, UIBk aldeko txostena egin ondoren, Unibertsitateko Irakaskuntza Koordinatze Kontseilura igorriko du proposamena, behar den txostena egin dezan. Berau jaso eta gero, proposamenak Gobernu Kontseilura igorriko ditu irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordetzak, berak erabaki dezan irakasle erretiratu emeritu gisa kontratatua izango den ala ez.

UIBren txostena aurkakoa denean, batzorde horri eskuordetuko dio Gobernu Kontseiluak erabakia hartzeko ahalmena.

Irakasle emerituen irakaslan eta ikerlana urtero ebaluatuko da, kontratua berri baina lehenago. Unibertsitateko Irakasleen Batzordea kontratua berritzearen alde agertzen bada, ez da izango beharrezkoa Gobernu Kontseiluak berriro erabakia hartzea.

Irakasle emeritu gisa kontratatzeko beharrezkoa izango da doktore titulua izatea, bai eta gutxienez hiru doktorego tesi zuzenduta ere.

Baldintza horiek betetzen direla ziurtatu ondoren, UIBk honako irizpideok aplikatuko ditu interesatuek egindako eskaeraren alde agertzeko:

1.- Kategoria akademikoa: gehienez 5 puntu.

1.1.- Unibertsitateko katedraduna: 5 puntu.

1.2.- Unibertsitateko irakasle titularra edo unibertsitate eskolako katedraduna: 3 puntu.

2.- Ikerlana: gehienez 15 puntu.



2.1.- 2 puntu produktibitate osagarrien tarte bakoitzeko (seiurtekoak): gehienez 12 puntu.

2.2.- Zuzendutako tesi kopurua: gehienez 3 puntu.

2.2.1.- 5 tesira arte: puntu 1.

2.2.2.- 7 tesira arte: puntu 2.

2.2.3.- 8 tesi edo gehiago: 3 puntu.

3.- Irakaslana: puntu 1 osagarri espezifiko irakats merezimenduen tarte bakoitzeko (bosturtekoak): gehienez 6 puntu.

4.- Erakunde mailako gestioa: gehienez 3 puntu.

4.1.- Errektorea: puntu 1 bi urteko tarte bakoitzeko.

4.2.- Errektoreordea/idazkari nagusia: 0,75 puntu bi urteko tarte bakoitzeko.

4.3.- Ikastegiko dekanoa edo zuzendaria: 0,50 puntu bi urteko tarte bakoitzeko.

4.4.- Dekanordea/saileko zuzendaria edo kategoria baliokidea: 0,25 puntu bi urteko tarte bakoitzeko.

4.5.- Saileko idazkaria: 0,15 puntu bi urteko tarte bakoitzeko.

5.- Bestelako merezimendu aipagarriak: gehienez 2 puntu.

5.1.- Jarduera instituzionalak edo nazio mailako zein nazioarteko sari bereziak.

5.2.- Kargu publikoak: ministroa, sailburua, estatu idazkaria, sailburuordea, zuzendari orokorra eta antzekoak.

5.3.- Beste batzuk.

6.- Eskatzailearen proiektua irakaskuntzaren edo ikerketaren arloan, irakasle emeritu izendatzekotan egingo duena: gehienez 2 puntu.

Unibertsitateko Irakasleen Batzordea eskaera baten alde ager dadin 20 puntu lortu beharko ditu gutxienez.

Era berean, Gobernu Kontseiluak irakasle emeritu bat kontratatze baimena eman dezan, beharrezkoa izango da Unibertsitateko Irakaskuntza Koordinatze Kontseiluaren txostena aldekoa izatea.

70 urte betetzean erretiroa nahitaez hartu dutenen kasuan kontratua urtero luzatu ahal izango da, kontuan hartuta urriaren 21eko 247/2003 Dekretuak dioena. Irakasle emerituak egindako irakaslana eta ikerlana ebaluatuko da horretarako. 75 urtetik gorako pertsonak ezingo dira kontratatu irakasle emeritu moduan.

Urriaren 21eko 247/2003 Dekretuaren arabera, irakasle emerituak arduraldi osorako kontratatu behar dira; beraz, unibertsitateko lanpostuekin lotuta dauden plaza asistentzialak dauzkaten funtzionarioak irakasle emeritu izendatu ahal izateko beharrezkoa izango da Osakidetzako organo eskudunaren idatzia, adieraziko duena interesatuak ospitaleko azpiegiturak erabili ahal izango dituela irakasle emeritu gisa eskaintzeko zerbitzuak (55/2003 Legeko 4. xedapen gehigarria).

Ez da eskaririk onartuko ez bada EHUren erregistroan aurkeztu ikasturte bakoitzerako zehaztutako epearen barruan.



11.2.- IRAKASLE BISITARIAK.

Honako hauek arautzen dute irakasle bisitariaren irudia: abenduaren 21eko Unibertsitateen 6/2001 Lege Organikoko 54.2. artikulua, urriaren 21eko 247/2003 Dekretuko 10. artikulua eta Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legeko 24. artikulua.

Irudi hau bat dator urriaren 21eko 247/2003 Dekretuan eta EHUko Estatutuetan (45. artikuluan) zehaztutakoarekin.

Irakasle bisitarien ordainsarien araubideak hau izango du erreferentzia: irakasle horien jatorrizko plazak hemengo unibertsitate sistemari izango lukeen kategoria, bai irakasle titular gisa bai katedradun gisa.

Irakasle bisitariak kontratatzeko prozedura hau izango da:

- Kontratazioa egin nahi duten sailek premien memoria prestatuko dute. Proposatzen duten irakasleek egindako irakaskuntza eta ikerketa proiektua aurkeztu beharko dute memoriarekin batera. Curriculum vitae-a ere erantsiko da, formatu estandarrean.
- Eskariarekin batera kontseiluko idazkariaren ziurtagiria (kontseiluak hartutako erabakiarena) eta idazkari akademikoaren ziurtagiria (ikastegiko batzarrak hartutako erabakiarena) aurkeztu beharko dira.
- Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak proiektuaren memoria aztertuko du, eta egindako proposamenaren alde edo aurka azalduko da. Iritzia aldekoa izanez gero, Gobernu Kontseilura igorriko du kontratazioa egiteko proposamena. UIBren txostena aurkakoa denean, batzorde horri eskuordetuko dio Gobernu Kontseiluak erabakia hartzeko ahalmena.

Irakasle bisitariak beste unibertsitate edo irakasgune eta ikerguneetan diharduten ospe handiko irakasleak dira, unibertsitateak kontratatzen dituenak bere irakaskuntza eta ikerketa maila hobetzeko. Euren kontratuak gehienez ere bi urte iraungo du, nahiz -merezimendu berdinekoen artean- egonaldi laburragoetarako eskariak lehenetsiko diren (gutxieneko egonaldia 6 hilabetekoa izango da), ustez horiek egokitzen zaizkiola ondoen irakasle bisitariaren figurari. Salbuespen gisa beste urte baterako luzatu ahal izango da (kontratua gehienez ere hiru urterako izango da), baldin eta Unibertsitateko Irakasleen Batzordeari iruditzen bazaio hasieran aurkeztutako irakaskuntza eta ikerketa proiektua egokiro bideratu dela, eta sailaren premiek kontratua luzatzea gomendatzen badute.

Irakasle bisitarien eskubideak eta betebeharrak irakasleen kidegoetakoak direnentzat ezarritako arauetara lotuko dira, beren kontratuaren klausuletan aipatutakoari kalterik egiteke.

12.- KANPOKO FINANTZAZIOAZ KONTRATATUTAKO IKERTZAILEAK.

EHUko behin-behineko Gobernu Kontseiluak, 2003ko ekainaren 24an, Unibertsitateen 6/2001 Lege Organikoko 48.3. artikuluan aipatutako ikertzaileak kontratatzeko prozedura arautzen duen prozedura onartu zuen. Erabaki hori EHUko behin-behineko Gobernu Kontseiluak 2004ko martxoaren 17an hartutako erabakiaren bidez aldarazi zen.

1.- Aplikazio eremua.- Prozedura hau ikerlarien kontratuei aplikatuko zaie, doktore, lizentziatu, ingeniari edo arkitektoaren titulua edo titulazio baliokidea daukatenei edo unibertsitateko diplomatu, arkitekto tekniko edo ingeniari teknikoaren titulazioa daukatenei. Kontratuak edozein jakintza arlotan egin ahal izango dira eta kanpoko finantziarioa duten fondoetara kargura egingo dira lanak, hau da,



apirilaren 14ko 13/1986 Legeak, Ikerketa Zientifiko eta Teknikoa Sustatu eta Koordinatzekoak, 17.b) artikuluan jasota ez dituen egoerak izango dira. Aplikazio eremu honetatik kanpo daude kanpoko finantziazioarekin administrazio lana egiteko kontratatu diren langileak, hau da, ikerlanean zuzenean lanean ari ez direnak.

Beste administrazio batzuek ikerlariak hartzeko egindako laguntza deialdien bidez kontratatutako ikerlariak deialdi horietan zehaztutakoaren menpe egongo dira; hala ere, prozedura hau deialdi horien osagarri izan daiteke, eta aplikatu ahal izango zaie hartan zehaztutakoaren kontra ez doan guztietan. Kontratututako ikerlariak lizentziatu edo titulu baliokidea duenean, araudi honi jarraituz egindako kontratua ez da izan behar, nahitaez, doktorego tesia lortzera bideratua.

2.- Ekimena.- Ikerlariak kontratatuzeko proposamena sailak, institutuak edo katedrak berak egin beharko du, eskaria irakasleen arloan eskumena duakan errektoreordeari zuzenduta. Eskariarekin batera honakoak aurkeztu beharko dira:

- Saileko kontseiluaren, institutuaren edo katedraren erabakia, ikerlaria kanpoko finantziazioaren kargura kontratatzearen aldekoa. Erabakian jasota egon beharko dira batetik, ikerlariaren ordainsarietarako zenbateko gordina, eta, bestetik, kontratazio aldia. Horrez gain, jasota egon beharko dira lehiakideek bete beharreko baldintzak, eta merezimenduen lehiaketa zein irizpideren arabera ebatziko den. Gogoan izan behar da euskara ez denean derrigorrezkoa kontraturako, merezimendutzat hartuko dela. Horrelakoetan merezimenduen %10 balioko du eta puntuazio emateko honakoak izango dira kontuan: Gobernu Kontseiluak 1994ko ekainaren 30ean hartutako erabakia, 1998ko maiatzaren 18an hartutako eta 2002ko abenduaren 11n hartutako.

Kontraturako dirulaguntza publikoak edo pribatuak dituztela egiaztatzen dituzten agiriak. Izan ere, ikerketako programa edo proiektu bereziak egiteko Unibertsitateak berak ez badauka nahikoa langilerik, eta kanpoko ikerlariak, zientzialariak edo teknikariak kontratatu behar badira aldi baterako, dirulaguntza publiko edo pribatuak izan beharko dira.

- Ikerketaren txostena, ikerlariak egingo dituen lanei buruzkoa, saileko kontseiluak, institutuak edo katedrak onartua.
- Ebaluazio Batzordearen proposamena, kontratua adjudikatzeko merezimenduei buruzkoa, saileko kontseiluak, institutuak edo katedrak onartua.

Eskaria, proiektuaren izaeraren arabera, ikerketa eta nazioarteko harremanen arloan eskumena daukan errektoreordeak edo enpresekiko harremanen arloan eskumena daukan errektoreordeak onartu beharko du.

3.- Eskaria kontuan hartuta, eta Gerentziak gastua onartu badu, irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordeak baimena emango du ikerlariak kontratatuzeko tramiteak egiten hasteko.

4.- Deialdia irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordearen erabaki bidez onartu beharko da, eta Errektoregoko Lehiaketa Ataleko, campusetako errektoreordetzeko eta kasuan kasuko sail, institutu eta katedretako iragarki tauletan argitaratuko da, bai eta Euskal Herriko Unibertsitateko web orrian ere. Deialdia unibertsitatearen iragarki ohol birtualen bidez ere argitaratuko da EHUko langileei berri emateko.

5.- Eskariak aurkezteko epea amaiturik, onartu eta ez onartuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da Lehiaketa Ataleko, campusetako errektoreordetzeko eta kasuan kasuko sailerako, institutuak



eta katedrako iragarki oholetan (horixe izango da interesatuei horren berri emateko modua). Hiru eguneko epea irekiko da, zerrenda hori argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, errakuntzak zuzentzeko, bai eta zerrenda horren kontrako erreklamazioak aurkezteko ere. Behin epea bukatuta, zerrenda behin betikoa izango da, eta haren kontra berraztertzeke errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordeari; edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzietako dagokion epaitegian, bi hilabeteko epean, zerrenda iragartzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Bestalde, EHUren web gunean iragarriko da onartuen eta baztertuen zerrendak argitaratuta daudela aipatutako oholetan.

6.- Ebaluazio Batzordearen kideak: burua, ikerketa proiektuko ikerlari nagusia izango da; idazkaria, kasuan kasuko sail, institutu edo katedrak proposatuko du; batzordekide bi ikerketa taldekoak izango dira, eta beste bat sindikatuen ordezkaria, lan-kontratudunen Irakasle eta Ikerlarien Enpresa Batzordeak proposatua.

Epaimahaiek ezin izango dute inolaz ere proposatu lehiaketara ateratako plaza kopurua baino kontratu adjudikazio gehiago. Ikerlarien plazak betetzeko proposamenak unibertsitateko Lehiaketa Ataleko, campusetako errektoreordetzako eta kasuan kasuko sail, institutu edo katedrako iragarki oholetan argitaratuko dira (horixe izango da interesatuei horren berri emateko modua). Hala ere, kontratua lortzeko proposatu duten pertsonak jakinarazpena hartuko du (hartu egin duela egiaztatzen duen bideren baten bidez). Bestalde, EHUren web gunean iragarriko da onartuen eta baztertuen zerrendak argitaratuta daudela aipatutako tauletan.

7.- Kontratua egiteko organo eskuduna irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordea izango da. Proposatutako lehiakideek 3 egun izango dituzte kontratua sinatzeko, lehiaketa euren alde ebatzi dela esaten dien jakinarazpena jaso dutenetik kontatzen hasita. Epe horretan aurkeztuko ez balira kontratua sinatzera, kasuan kasuko ikerketa kontratuari uko egin diotela ulertuko da, eta, ondorioz, batzordeek proposatutako zerrendako hurrengoari deituko litzaioke, baldin eta halako zerrendarik egin balute.

Oso kasu berezietan, eta irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordetzak hala erabakiko balu, aurreko paragrafoan adierazitako epea luzatu ahal izango da.

8.- Ikerlariak kontratatzeke egiten dituzten proposamenen kontra gora jotzeko errekurtsioa zuzendu ahal izango zaio unibertsitate honetako irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordeari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, proposamen horiek argitaratzen diren egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

9.- Kontratututako ikerlariak lan do zerbitzu zehatzetarako lan kontratua izango du (Langileen Estatutuetako 15. artikulua), eta kontratua indarrean dagoen aldian sor daitezkeen arazoak konpontzeko eskumena lan arloko jurisdikzioak izango du.

Ikerlariak izango duten arduraldi osoko lanaldia irakasleek duten bera izango da (astean 35 ordu).

Unibertsitateen 6/2001 Lege Organikoan eta erabaki honetan zehaztutakoarekin bat etorrira, kontratatutako ikerlarien ordainsariak unibertsitate eskolako irakasle titularrei (doktor ordainsaririk gabe) edo unibertsitateko irakasle titularrei dagokiena izango da hurrenez hurren (doktoregoa eskatzen den edo ez kontuan izanda), baina ez dute irakats merezimenduengatik edo ikerketagatik ordainsari osagarririk eskuratuko, eta lanaldi osoa ez dutenean, hala dagokien ehunekoak kenduko zaie lanaldi osoko ordainsaria oinarri hartuta. Ordainsariak 14 hilekotan banatuta ordainduko zaizkie.



Zehaztutako gora behera, eta bat etorrita 1986ko martxoaren 27ko Aginduko 3. artikuluan jasotakoarekin, Gobernu Kontseiluak, erabaki bidez, zientziaren eta teknikaren arloan ikerketa proiektu zehatzak egiteko kontratatutako ikerlarientzat ordainsari handiagoak onartu ahalko ditu.

Langile hauek lan kontratuaren arabera arautuko dira, EHUko behin-behineko Gobernu Kontseiluak 2003ko ekainaren 24an hartutako erabakiaren arabera (2004ko martxoko 17ko Akordioaren bidez aldarazia), eta laneko baldintzak arauzkotzeko hitzarmen kolektiboaren arabera, eta ezar daitezkeen gainontzeko arautegien arabera.

13.- LEKTOREAK.

Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuek (abenduarien 23ko 322/2003 Dekretuaren bidez onartuek), honakoa diote xedapen gehigarrietatik hirugarrenean:

Lektoreak unibertsitatean atzerriko hizkuntza eta literatura ematen duten irakasleak dira. Eginkizun hori betetzeko beharrezkoa da estatu espainiarrak edo bestelako erakunde espainiarrek hitzarmena izatea lektoreen jatorrizko herrietako pareko erakundeekin. Kontratuaren baldintzak, arduraldia, kontratuaren iraupena eta luzapena hitzarmen horien arabera arautuko dira. Dena dela, Gobernu Kontseiluari aurkeztu beharko zaizkio beren-beregi onar ditzan. Lektoreak UPV/EHU-n irakasten dauden bitartean, irakasle laguntzaileen parean egongo dira.

Irakasle lektorea kontratatzearen helburua da lehenengo eta bigarren zikloan eta doktorea izanez gero, hirugarren zikloan, atzerriko hizkuntza eta kultura ematea, literatura barne. Ikastaro horiek harrera unibertsitateko ohiko programetan jasota egongo dira eta irakasle lektoreari prestakuntza emango zaio hirugarren zikloko ikasketetan eta bestelako hobekuntza programetan. Hori guztia irakaskuntza hori babesten duten agintari akademikoen arteko hitzarmenaren bidez egingo da, eta harrera ikastegiko baldintzak kontuan hartuta.

Irakasle lektorea jakintza arlo, sail eta ikastegi bati atxikita egongo da, eta irakasleen plantillakoa izango da ondorio guztietarako.

Irakasle lektorea kontratatzeko beharrezkoa da hitzarmena sinatzea EHUren, estatu espainiarraren edo bestelako erakunde espainiarren eta lektoreen jatorrizko herrietako pareko erakundeekin. Hitzarmena beren-beregi onartu behar du Gobernu Kontseiluak, legezko txostena, txosten ekonomikoa eta eragindako arlo eta zerbitzu guztiena jaso ondoren.

Hitzarmenaren iraupena gorabehera, irakasle lektorearen kontratua (lan kontratuduna izango da) hiru urterako izango da, eta gehienez ere 5 urtera arte luzatzeko aukera egongo da. Azken kontratua luzatu egin ahal izango da (gehienezko 5 urteak gaindituta) beste irakasle lektore bat kontratatzeko tramiteak egiten diren bitarteko.

Kontratu bakoitza bukatu baino lau hilabete lehenago, kasuan kasuko sail eta ikastegiak irakasle horrek egindako lanari buruzko ebaluazio txostena egingo dute, eta hitzarmena sinatu duen beste erakundeari igorriko zaio.

Txosten hori aldekoa izan behar da irakasle lektorearen kontratua luzatu ahal izateko.



Txosten hori ez bada aldekoa, kontraturako ezarritako gehienezko iraupena agortu egin bada edo beste arrazoiren bategatik beste irakasle lektore bat kontratatu behar baldin bada, kasuan kasuko sail eta ikastegia hitzarmena sinatu duen beste erakundearekin jarriko dira harremanetan beharrezko diren tramite guztiak egin eta beste irakasle lektore bat bidal dezaten EHUra.

Irakasle lektorearen kontratua hitzarmenean egongo da zehaztuta, baina dena dela, agiri horretan berariaz zehaztu beharko dira: kontratuaren iraupena eta izan ditzakeen luzapenak (kontratuaren iraupena arautegi honetan zehaztutakoarekin bat etorri beharko da), arduraldia, irakats betebeharrak eta ordainsariak.

Arautegi hau sinatzen den egunean kontratatuta dauden irakasle lektoreen kontratuak kasuan kasuko hitzarmenean jasotakoaren arabekoak izango dira, amaitu arte.

Hitzarmenean jasotako ez dagoenerako, irakasle lektorearen araubide juridikoa irakasle laguntzaileari dagokiona izango da, diziplina araudiari, bateraezintasun araudiari eta abarrei dagokionean.

Eskatuko zaion gutxieneko titulazioa jatorrizko herrialdean lizentziatu, ingeniari edo arkitekto edo parekoaren baliokidea dena izango da, eta titulazio hori egiaztatzeko egoki diren agiriak aurkeztea eskatu ahal izango zaio.

14.- IRAKASLEENTZAKO LIZENTZIA SABATIKOAK.

EHUko Estatutuetan, 64. artikuluan, zehaztuta dago irakasle eta ikertzaileek urte sabatikoa eskatu ahal izango dutela, sei urte eraman ondoren lanean EHU arduraldi osoan funtzionario edo kontratatu iraunkor moduan, Gobernu Kontseiluak ezarritako arauetara jarraiki. Edonola ere, ahalegina egingo dute bitarteko erabilgarriak premia handien duten jakintza arloetako kontratazioetarako erabiltzeko. Premiak erreferentziazko plantilla ikusita zehaztuko dira, irakasleen eta ikertzaileen ordezkaritza organoekin negoziatu ondoren, indarrean egongo den legerian adierazitako moduan.

Bestalde, EHUko langileen lan baldintzak arautzeko akordioko 78. artikuluan adierazten zen arautegi bat prestatuko zela, EHUko irakasleek urte sabatikoak nola hartu behar dituzten zehazteko (aipatutako akordioa 1996ko azaroaren 12an argitaratu zen EHAAn, EHUren 1996ko urriaren 23ko erabakiaren bidez).

Bukatzeko, otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoak, 32. artikuluan honakoa dio:

“Irakasle eta ikertzaileei dagozkien gainerako lizentziak baztertu gabe, irakaskuntza eta ikerketa garatzeko jardueretarako lizentziak edo lan utzialdiak emateko beharrezko diren tresnak arautuko dira; denbora osoko dedikazioz eta doktore titulua izanda beren jarduerak funtzionario zein kontratatu moduan betetzen dituztenei aplikatzekoak zaizkien arauetara bat etorritik arautuko dira tresna horiek.”

Gobernu Batzarrak Irakasleen Lizentzia Sabatikoaren Arautegia onartu zuen 1999ko otsailaren 3an.



14.1.- BALDINTZAK.

1) Hurrengo artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten unibertsitateko irakasleen kidegoetako irakasleek edo lan kontratuko irakasle iraunkorrek eskatu ahal izango dute lizentzia sabatikoa.

2) Urte sabatikoa hartu ahal izateko beharrezkoa izango da irakasleak sei urte emanda izatea Euskal Herriko Unibertsitatean arduraldi osoan, eta azkeneko sei urteetan lizentzia sabatikorik edo ikasketengatiko lizentziak hartuta ez izatea, azken horien aldi pilatua sei hilabete baino gehiago denean. Horretarako, ordezkoren bat edo behin-behineko plazaren bat betetzen egondako denbora ere hartuko da kontutan.

Aurrekoaren ildotik, aldi sabatikoa sei hilabetekoa edo urtebetekoa izan ahal izango da, interesatuek gura duten bezala. Seihilabete sabatikoa hartu duten irakasleek hiru urtegarrenera eskatu ahal izango dute beste seihilabete sabatikoa, edo, bestela, urte sabatikoa sei urtegarrenera.

3) Lizentzia sabatikoa gutxienez sei hilabetekoak izango dira: ondorioz, urte sabatikoa zatika hartu ahal izango da, hots, sei hilabeteko bi lizentziaren bidez.

4) Lizentzia sabatikoa izatea eta edozein kargu akademiko betetzea bateraezinak dira.

5) Urte sabatikoan, gehienez, ordainsariaren %80 jaso ahal izango da, ikerketa lanetarako urte sabatikoa izan eta ordezeko irakaslerik kontratatu beharrik ez dagoenean izan ezik; horrelakoetan, ordainsariaren % 100 ordain liteke.

14.2.- PROZEDURA.

1.- Aldi sabatikoa hartu nahi duten irakasleek eskaera aurkeztuko diote irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordeari ikasturte bakoitzerako zehaztutako epean. Eskariarekin batera dokumentu hauek aurkeztuko dira:

a) Zerbitzuen orria eta curriculum vitae arautua.

b) Irakasleak burutuko dituen eginkizunen txostena.

c) Zeregin akademikoak edo ikerketak burutuko dituen ikastegiak onartuta egotearen agiria.

d) Saileko kontseiluaren txostena, ordezeko irakaslerik behar dela berariaz adierazita (Unibertsitateko Estatutuak, 60.2. artikulua). Honi dagokionez, gogoan hartu beharra dago 898/1985 Errege Dekretua, unibertsitateko irakasleen erregimenari buruzkoa. Bertako 9.7. artikuluan ezartzen denez, lizentzia sabatikoan dauden irakasleen hutsunea betetzeko, sailek arduraldi osoko irakasle batzuen irakats betebeharrak handitu ahal izango dituzte, kontseilua horren alde agertzen bada; baina gogoan izanda asteen hiru ordu baino gehiago ezingo dutela handitu betebeharra.

Aurreko guztia gorabehera, EHUK urtero erreserbatuko ditu diru bideak irakats ahalmen osoa beteta daukaten sailetako irakasleen lizentzia sabatikoetarako. Halako kasuetan irakasle gehiago hartu ahal izango dira behin-behinekoz, baina egoera hori ez da inolaz ere finkatuko.

Saileko kontseiluak kontrako txostena egingo balu, berori modu objektiboan oinarrituta egon beharko litzateke, eta interesatuari bidali beharko litzaioke. Interesdunaren eskaria Unibertsitateko Irakasleen Batzordera bidaliko da, saileko kontseiluaren kontrako txostenarekin eta interesdunak egindako alegazioekin batera.



2.- Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak urtero zehaztutako epeetan ebaluatuko ditu eskaerak eta, txostena aldekoa bada, irakasleen arloan eskumena daukan errektoreordeak proposamenak aurkeztuko dizkio Gobernu Kontseiluari.

3.- UIBren txostena aurkakoa denean, batzorde horri eskuordetuko dio Gobernu Kontseiluak erabakia hartzeko ahalmena.

Lizentzia hartuko duen irakaslearen irakaslana saileko beste irakasleek beren gain hartzen dutenean, eta beraz lizentziak kostu erantsirik ez dakarrenean, eskabideak automatikoki onartuko dira, baldin eta saileko kontseiluak, UIBk eta Gobernu Kontseiluak onespena ematen badute.

Eskabideei aldeko txostena ematen zaienean, baina kostu erantsia dakartenean sailak ordezkotako irakasle bat kontratatu behar duelako, UIBk ordenatu egingo ditu eskaera horiek, aurrekontuek bideratzen duten eskaera kopurua onartzeko.

Eskaerak ordenatzerakoan honako irizpideok erabiliko dira, jasotako eskaerak aztertu baino lehen ezarritako baremo finko baten arabera neurtuta eta aztertuta, eta beti ere kontuan harturik jakintza arlo bakoitzaren ezaugarri bereziak:

- EHUUn egondako urteak.
- eskatzaileak lortuta dituen seiurtekoen kopurua.
- EHUko kargu akademikoetan emandako urteak.
- aldi sabatikoak dirauen bitartean burutuko dituen zereginak ordaintzeko lortutako beka.
- eskatzaileak izandako lizentzien kopurua eta iraupena. Lehentasuna emango zaie lizentzia gutxiago izan dituztenei.
- aurreko deialdi batean baimen sabatikoa lortu izana, baina ezin hartu izana, aurrekontuek horretarako biderik ez emateagatik.
- irakaskuntza eta ikerketa merezimenduei lotutako bestelako irizpide objektiboak, UIBk baloratuko dituenak.

Lizentzia amaituta, irakasleek hiru hilabeteko epea izango dute egindako zereginen txosten bat egin eta sailari aurkezteko. Sailak gero Ikerketa Batzordera bidaliko du, hark azken ebaluaketa egin dezan.

14.3.- BESTE LIZENTZIA BATZUK.

Unibertsitateko Estatutueta 62. artikuluan honakoa dago jasota: Gobernu Kontseiluak arautuko ditu irakasleei eta ikertzaileei emango zaizkien baimenak eta lizentziak hobekuntzarako, prestakuntza osagarriarako, edo elkarlanean aritzeko beste unibertsitate batekin edo beste erakunde akademiko edo zientifiko batekin. Ordainsari osoa jasoko dute, baldin eta horrek ez badio eragiten beste gasturik EHUri eta irakats betebeharrei aurre egiten bazaie. Horrela ez bada, ez dute jasoko ordainsaririk, eta baimena eskatu duen irakasleak betetzen zuen plazaren aurrekontuaren kargura ordainduko da irakaslana. Baimenak eta lizentziak eman aurretik negoziatu egin beharko da irakasleen eta ikertzaileen ordezkartza organoekin, indarrean egongo den legerian adierazitako moduan.

Gobernu Kontseiluak, aipatutako artikulua oinarri hartuta eta sindikatuetaorde ordezkariekin negoziatu ondoren, arautegia onartuko du doktore ez diren irakasleei eta ikertzaileei ikasketetarako lizentziak emateko baldintzak zehazteko, beti ere, ikasketak doktore titulua lortzera bideratuak izanik.



ERREKURTSOAK

Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Euskal Herriko Justizia Epaitegi Nagusian hilabete biko epean, erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (ikus Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 107. artikulua eta hurrengoak).

Leioa, 2004ko abenduaren 10^a.

Iz.: Juan José Unzilla Galán
IRAKASLEEN ERREKTOREORDEA